


III. GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

**Goiherriko Euskal Eskola
Maizpide Euskaltegia**

— «Goierriko Biztanleria (1860-1986)»
Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea



NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE
AGRICULTURA Y PESCA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1993

GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

- © Sortzaileak: Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartea
- Elosegi, 16, 1. ezker 20210-LAZKAO
Tfnoa.: 16 02 82
 - Maizpide Euskaltegia
Elosegi, 40-bis. 20210-LAZKAO
Tfnoa.: 88 92 31

Dinamizatzailea: Mari Joxe Madariaga Irastortza (G.E.E.)

Zuzendari Teknikoa: Joxemartin Apalategi Begiristain
Antropologia Soziala eta Euskal Kultura Garaikide eta
Konparatuaren Antropologo eta Irakaslea (E.H.U.)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea : Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea

Azala: Galarraga Urteaga, Amaia

Fotokonposaketa: DIDOT, S.A.
Nerbioi Kalea, 3-6.º Bilbao

Inprimategia: Gráficas Santamaría
Bekolarra Kalea, 4. 48010 Vitoria-Gasteiz

I.S.B.N.: 84-457-0217-3

L.G.: VI-815-92

JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituric*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.

Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizabal etxeko koadro bati ateratako argazkia.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	9
AURKEZPENA	11
GOIERRIKO BIZTANLERIA	13
Sarrera	15
Metodologia	17
Ingurune fisikoa	19
Biztanleriaren bilakaera	23
1. Epealdia: 1860-1930	27
2. Epealdia: 1930-1950	32
3. Epealdia: 1950-1975	32
4. Epealdia: 1975-1986	34
5. Ondorioak	34
Biztanleriaren banaketa	39
1. Udalerri-Kopuruaren Bilakaera	39
2. Hirigintza-Prozesua	41
3. Dentsitatearen bilakaera	44
Biztanleriaren egitura	47
1. Biztanleria sexuaren arabera	47
2. Biztanleria adinaren arabera	48
3. Biztanleria adin eta sexuaren arabera: Adin-piramidea	49
4. Biztanleria eta euskara	51
5. Hizkuntza eta hezkuntza	53
6. Biztanleriaren iharduera ekonomikoa	60
Biztanleriaren berezko mugimendua	63
1. Jaiotzak	63
2. Hilkortasuna	64
3. Berezko hazkundea	65
Migrazio-Mugimenduak	67

Ondorioak	73
Eranskin estatistikoa	77
Iturri estatistikoak eta bibliografia	85
1. Iturri estatistikoak	85
2. Bibliografia	85

HITZAURREA

Pozik eta harro gatozkizue aurten ere, lanak lan, izan ere geure ahaleginek beren ondorioa eman bait dute.

1989an sortu genuen Ikerlan-Sariketa eta geroztik hutsik egin gabe eta atsendenik hartu gabe ari gara lanean: III. Sariketako lanak argitaratu ditugu ale hauetan eta IV.a ere martxan da jadanik!

Garrantzitsua de gu geu, antolatzaile bezala, egindako lanaz pozik egotea, poz horrek berak ematen digu eta jarraitzeko indarra; baina aipatu, estimatu eta eskertzekoak dira kanpotik jaso ditugun kritika, animo eta indarrak ere.

Gure ustez ondo baino hobeto betetzen ditu Ikerlan-Sariketa honek bere helburuak, edo guk berarekin lortu asmo ditugunak behintzat: jadanik badira zazpi lan Goierri buruz jaso eta ezagutu nahi dituen edonoren esku argitaratuta jarri ditugunak.

Oraingo argitalpen honek, aurreko biekin gonbaratzen badugu, badu alderik: lehenengo bi saioretan sariketara aurkeztu eta epaimahaiaren ustez argitaragarriak ziren lanak liburuki bakarretan kaleratuak ditugu. Horrela, I. GERRIKO Ikerlan-Sariketako liburuan hiru lan aurki genitzake:

- «Basogintza Goierri XVIII.-XX. Mendeetan, Harizti-Pagadi eta Sail Zuhaizgabetuetatik Gaurko Pinudietara». Mikel Sarriegi Etxezarreta.
- «Urbia-Oltzeko Artzantza». Andoni Aizpuru Murua.
- «Artzantzaz Artzain Familia Batekin». Ainhoa Galparsoro Sarriegi.

II. GERRIKO Ikerlan-Sariketaren emaitza bezala berriz, bi lan argitaratu genituen liburu bakar batean:

- «Etnografiako Ikerlan bat». Nekane Arratibel Insausti.
- «Meataritza Goierri (1850-1950): Aztarnak». Beatriz Herreras Moratinos eta Josune Zaldua Goena.

Esan bezala III. Sariketa honetan, epaimahaikoen aholkuak kontuan hartu eta Argitalpenaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailekoen oneritziari esker, lan bakoitza liburu batean argitaratu dugu.

Sariketara aurkeztzen diren lanak desberdinak izanik, gai aldetik bezala ikuspegi eta estiloz ere, zera erabaki genuen: bakoitzak badituela bera bakarrik ale batean argitaratua izateko adinako nortasuna eta kategoria.

Beraz, eta antolaketa lanetan ari garen guztion ahaleginari eta Eusko Jaur-laritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari esker helburu genuena lortu ahal izan dugu.

III. Sariketa honetan epaimahaikoek hiru lan izan zituzten aztergai:

— «Amona, noiz, amona?». Leire Gurrutxaga eta Birjina Alonso.

— «Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)». Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola.

— «Goierriko Biztanleria (1860-1986)». Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea. Epaimahaia honako Jaun/Andreok osatu zuten:

— Anton Erkoreka, Antropologoa eta Eusko Ikaskuntzako Antropologia Saileko Lehendakaria.

— Pilartxo Etxeberria, Filologian Doktorea eta E.H.U.ko Euskara Zientifikoko Irakasle Titularra.

— Xabier Isasi, Psikologian Doktorea eta E.H.U.ko Estatistika Irakaslea. Sari-banaketa, 1992ko ekainaren 12an egin zen Lazkaoko Udaletxean.

Espaimahaiaren erabakia hauxe izan zen:

1. Lehen saria hutsik uztea.

2. Bigarren saria «Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)» ikerlanari ematea.

3. Hirugarren saria «Goierriko Biztanleria (1860-1986)» ikerlanari ematea.

Hiru lan horietatik bi eritzi zituzten argitaragarri eta interesatuek epaimahaikoekin egindako prestakuntza-lan osagarriari esker, hona hemen emaitza.

Zuzenketa eta osaketa lanak ugariak izan dira eta kontzientziaz egindako lan horien lekuko hemen ditugu, bi liburu berri.

Aipatu eta eskertzekoa da halaber Zuzendari Tekniko bezala Joxemartin Apalategi Begiristainek Sariketaren antolaketatik hasi eta lanak argitaratu bitarte eskaini digun laguntza. Ikerlan orok behar duen eta guk geuk bakarrik aurkituko ez genukeen ikerlanen arloko ikuspegi zorrotza berak eskaintzen digu.

Baina, idatzitakoa irakurtzea bezalakorik ez dago lanean aritu dena poztu eta zoriontzeko.

Beraz, gure aldetik eskerrik asko eta zorionak ikertzaile eta laguntza eman diguzuen guztioi eta hurrengorarte esan nahi dizuegu.

Lazkao, 1992ko azaroa

ANDONI SARRIEGI ESKISABEL

Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkarteko Lehendakaria

PELLO JOXE ARANBURU UGARTEMENDIA

Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria

AURKEZPENA

IKERLANAREN BALDINTZAK

Jose Inazio GERRIROren (1740-1824) izenez ezagutzen den Ikerlan-Sariketaren 3. aldian irabazle izandakoen azterlanak argitaratzen dituzten liburuei, aurretik labur-labur gogoeta bat edo beste egin nahi dizkiet.

Lehenik, 1. aldiko irabazleen azterlanen libururako egin nuen «Aurkezpena: Euskal Kulturgintzaren Arduradunoi» (13-17. orr.) dalakoan nioen zerbait gaurkoan ere bergoratu egin nahi diet irakurleei. Nauxe da hitzez hitz hona aldatuta:

«Denbora guztian, etengabe, kulturak eginez, deseginez eta berreginez doaz; etengabe. Bestalde, Kulturazko osatzaileetatik, lehen mailan bakarrik pertsona azaltzen da hots, bizia, zeinari norjabetasunak eustarazten dion. Hurrena, lehentasunaren arabera, bigarren mailan lurraldetasuna, hizkuntza eta jakituria (hau da berdin, ohiturak gehi kulturazko materiala) daude.»

«Etengabe» nioen! Hori bi modutara lortzen da: bata, egitarauari bizitza oso eta, ahal bada, luze batekin gaina emanez; bestea, honelako egileak belaunaldi berriarekin harreman hestutan egonez.

Euskaraz egiten den ikerkuntza orain-oraintsu hasitakoa dugu. Hasiera eman diogunok bizitza guztian, gutxienez, eutsi behar diogu; eta horrela izan dadila erregutzen dizuet. Gainera, belaunaldi berriarekin ere gogoz lan egiteko. Egiten ari garena burutzeko belaunaldi berriari geroz eta gehiago laguntzearen aldeko jartzen ari naiz. Izan ere, haritz handia bakarrik, bere urteei esker handi egiten den bitartean, pertsonon asmo handiak belaunaldi askoren urteei esker egiten dira handiak. Azken finean, pertsona eta taldea uztartzerakoan soilik bihurtzen dira asmoak egia.

Goiherriko Euskal Eskola eta Maizpide Euskaltegia (eta hurrengotik aurrera, Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea ere bai), elkarrekin aurrera eramaten ari diren GERRIKO Ikerlan-Sariketaren egitaraua goi-goi mailako euskal Kultur ekintzatakotzat dugula argi eta garbi aldarrikatzen dut. Baina txalupa honek aurrera etengabe egitekotan ikerlarien talderantz ere jo behar dute antolatzaileek. Orain arte parte hartu duten guztiekin batera, sari-irabazle zein ez-irabazleekin, arestian aipatutako bi antolatzailekideak zorientzen ditut hiru aldi hauetako lan eskerगतिक.

Azkenik, gure herritar lan-taldeak, Erakundeak eta banakoak ikerlan hauetaz baliazera gonbidatzen ditut, nola ikerlan sarituak esponsorizatuz, hala euren alorrean ikerlan saritu horietatik aplikagarri gertatuko zaizkienak erabiliz. Orduantxe bai GERRIKO Ikerlan-Sariketaren asmoa oso-osorik beteko dugula euskal kulturkide garen aldetik!

JOXEMARTIN APALATEGI BEGIRISTAIN

Antropologia Soziokulturaleko eta
Euskal Kultura Garaikide eta Konparatuko
Antropologo eta Irakaslea

GERRIKO Ikerlan-Sariketako Zuzendari Teknikoa

GOIERRIKO BIZTANLERIA
(1860-1986)

— *Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea*

SARRERA

Zenbait historilarik dioenez, Industri Iraultza izan da Neolito Arotik gizakiak ezagutu duen aldakuntzarik garrantzitsuena. XVIII. eta XIX. mendetik aurrera, industria modernoaren garapena dela eta, guztia aldatuko da: lana, pentsamoldea, talde sozialak, e.a.; eta aldakuntza horien ondorioz, gainerakoak. Esan daiteke, Industri Iraultzari esker jarri zirela, nolabait, gaur egungo gizartearen oinarriak.

Aldaketa horien artean, besteak beste, demografi aldaketak dira azpimarragarriak. Industri Iraultza aurretik, biztanleriaren hazkundera, dinamika eta banaketa espaziala nekazal eredu ekonomikoari lotuak egon baziren, eraldaketa honen ondorioz eredu ekonomiko industrialari atxikiak egongo dira. Iharduera industrialala izango da biztanleria leku jakinetan finka arazi eta gero demografi hazkunderaren faktore erabakiorra. Zelinsky geografoak lotura hau oso ondo aztertu du (1).

Lan honen helbururik garrantzitsuena, Goierri eskualdean industrializazio modernoaren prozesu goiztiar bati loturik suertatu diren eraldaketa demografikoak aztertzea eta argitzea da. Goierriko eskualdean, industrializazio modernoaren lehen urratsak Beasaingo «Fabrica de Hierros San Martin de Urbietta» lantegiaren sorrerarekin eman ziren, 1860. urtean (2). Garai horretan hasi zen Goierriin industri moderno indartzen, baina industri berri honek bere benetako hazkundera ez du XX. menderarte ezagutzen.

Oinarritzko asmo honekin batera, gure lan honek ikerketa demografikoek Euskal Herrian jasaten duten urritasuna hobetu nahi luke. Eskasia hau eskualde eta udalerrri mailako lanetan areagotu egiten da (3).

Aukeratutako epealdiak 1860-1986 bitarteko urteak hartzen ditu: 1860, industrializazio lehen pausuk ematen diren urtea; eta 1986, berriz, azken Udalerrolda egiten den urtea. Dena dela, epealdi horretatik kanpoko datuak ere kontuan hartzen ditugu.

1. ZELINSKY, W.: *Introducción a la geografía de la población*, Vicens-Vives, Bartzelona, 1971, 45. orr.

2. CASTELLS, L.: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*, EHU-Siglo XXI, Madrid, 1987, 58. orr.

3. BECERRA, P.: «Situación y problemática de los estudios demográficos sobre el País Vasco», in *Eusko Ikaskuntza. Historia-Geografía*, 1. zk. (1983), 322-324. orr.

METODOLOGIA

Ikerlan honek industrializazio aurreko egoera, garapen industrialaren ondorengo, eta 70. hamarkadako krisi ekonomikoaren inguruan sortzen den egoera berria aztertzeko aukera eman digu. Bestalde, eta ahal izan dugun neurrian, landagune eta industriguneen arteko desberdintasunak ere azaltzen ditugu. Horretarako biztanleriaren kopurua eta banaketa, berezko hazkundera eta migrazio-mugimenduak, eta beste hainbat berezitasun demografiko (adina, sexua), ekonomiko (biztanleria aktiboa, sektore ekonomikoak, langabezia) eta kultural (hezkuntza, euskara) aztertzen dugu.

Ikerketa egiterakoan, bi informazio-iturri mota erabili dugu: alde batetik, estatistikoak edo primarioak; eta bestetik, bibliografikoak edo sekundarioak. Orokorrean, lehenak taulak eta grafikoak gauzatzeko, eta bigarrenak emaitzen edo datuen zioak argitzeko erabili dira.

Iturri estatistikoei dagokienez, garrantzitsuenak aipatuko ditugu: «*Biztanle-Zentsua*» hartu dugu oinarritzat, bere aberastasuna dela eta. Biztanleriaren bilakaera eta banaketa, biztanleriaren egitura, hezkuntza eta euskara, eta migrazio-mugimenduak ezagutarazteko berau hartu dugu. Ikerketa honetan, Estatu Espainiarrean egin diren zentsu modernu guztiez baliatu gara, 1897koa izan ezik. Hain zuzen ere, 1857, 1860, 1877, 1887, 1900, 1910, 1920, 1930, 1940, 1950, 1960, 1970 eta 1981ekoak. 1991ko zentsuaren behin-behineko emaitzak ere erabili dira (4).

Bestalde, 1975 eta 1986 urteetako datu-bilketarako «*Udal-Errolda*» hartu dugu kontuan, 70. hamarkadaren erdialdera hasten den demografi fase berria dela eta, urte horietako datuak funtsezkoak bait dira.

Euskal Estatistika-Erakundeak kaleratutako beste hainbat iturritara ere jo dugu: «*Biztanleriaren Berezko Mugimendua*», «*Urtekari Estatistikoa*», «*Udal Adierazleak 88*», «*Demografi Seriak: 1970-1986*», e.a.

Azkenik, eta aspektu demografikoak azaltzera pasa aurretik, aztertu behar dugun lur-eremua mugatu beharrean aurkitu gara. Hau da, Goierri eskualdea mugatu behar dugu. Ez da gauza erraza Goierri eskualdea non lekutzen den, zer muga dituen eta zeintzu udalerrik osatzen duten zehatz-mehatz adieraztea. Honela,

4. Lehenengo zentsu modernoak XVIII. mendean Europako iparraldean eginikoak ditugu, ASKOREN ARTEAN: *Diccionario de Geografía*, Anaya, Madrid, 1986, 47. orr.

adibidez, tolosar batentzat Alegiaz goitik hegoalderanzko udalerriak Goierri dira, alegiarrak barne.

Arazo hau Euskal Herriko eskualdekatzearen aferarekin lotua dago. Kataluniak ez bezala, Euskal Herriak gehiengo nagusi batek onartutako eskualdekatzerik ez bait du (5).

Dena dela, gure lan honetan Goierri eskualdea mugatu beharrean aurkitu garenez, erabili dugun eskualdekatzea 1980. urtean EUSTAT-ek eginikoa izan da. Eskualdekatze honek Gipuzkoa (1997,0 km²) zazpi eskualdetan zatitzen du (ikus 1. irudia eta 1. taula): Bidasoa-Behea (71,6 km²), Deba-Behea (182,4 km²), Deba-Garaia (345,0 km²), Goierri (350,3 km²), Donostialdea (305,1 km²), Tolosaldea (332,2 km²), eta Urola-Kostaldea (327,7 km²). Eta eskualde-banaketa honetan, Altzaga Itsasondotik banandu ondoren (1967-1990 bitartean Itsasondo udalerriari lotua egon zen), Goierri 21 udalerriz osatua agertzen zaigu (ikus 2. irudia): Altzaga (1,5 km²), Arama (1,3 km²), Ataun (59,0 km²), Beasain (30,0 km²), Ezkio-Itsaso (21,3 km²), Gabiria (14,9 km²), Gaintza (5,9 km²), Idiazabal (29,5 km²), Itsasondo (9,9 km²), Lazkao (11,4 km²), Legazpi (42,2 km²), Mutiloa (8,8 km²), Olaberria (7,0 km²), Ordizia (5,7 km²), Ormaiztegi (6,9 km²), Segura (9,2 km²), Urretxu (7,9 km²), Zaldibia (16,2 km²), Zegama (35,0 km²), Zerain (10,5 km²) eta Zumarraga (16,5 km²). Ez dira, beraz, ikerlan honetan kontuan hartu Abaltzisketa, Ikaztegieta eta Legorreta udalerriak (6).

Bestalde, gure ikerlanerako lurmuga bezala oinarritzat, egungo (1991) udalzerrenda hartu badugu ere, ikerketa-epaaldian desagerturiko udalerriak ere kontuan hartu ditugu. Hain zuzen ere, Astigarreta eta Gudugarreta. Bi udalergi hauek Beasain udalerriari lotu ziren; lehena 1929an, eta bigarrena 1882an.

5. CAÑAMERO REDONDO, A.: «Las comarcalizaciones en Euskal Herria», in *Eusko Ikaskuntza. Historia-Geografia*, 1. zk. (1983), 67-73. orr. GALDOS URRUTIA, R.: *Estructura y dinámica de la población alavesa (1900-1981)*, Arabako Foru Aldundia, Azterlanak, 22. zk., Gasteiz, 1990, 19-20. orr. ARDAITZ, I.: *Navarra: elementos para su estudio regional*, Eusko Ikaskuntza, Iruñea, 1980, 153-185. orr.

6. EUSTAT: *Euskal Urtekari Estatistikoa*, Gasteiz, 1990, 44. orr. Altzaga eta Itsasondo udalerrien hedaduraren berri azken udalergi honetan lortu dugu.

INGURUNE FISIKOA

Gorabehera demografikoak aztertzen hasi aurretik, Goierri eskualdea kokatzen den lekune geografikoa deskribatuko dugu.

1. Irudia: Gipuzkoako eskualdeak



Datu-iturria: EUSTAT

Goierri, Gipuzkoa probintziaren hegoekialdean kokatuta dagoen eskualdea da. Iparraldera, Azpeitialdea eta Tolosaldea ditu mugakidetzat; Ekialdera, Deba Garaia; Hegoaldera, Araba eta Nafarroa eta Ekialdera, Nafarroa eta Tolosaldea. Azaleraz ez da inola ere eskualde txikia: 350,3 km². Gipuzkoako eskualderik handiena. Eta itsasoarekiko batezbesteko altuera ere dexentea du. Orokorrean,

1. Taula. Erabilitako Eskualdekatzea: Barne Hartzen Dituen Udallerriak (1991).

BIDASOA-BEHEA: Hondarribia eta Irun.

DEBA-BEHEA: Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze.

DEBA-GARAIA: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Gatzaga eta Oñati.

DONOSTIALDEA: Andoain, Astigarreta, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil.


GOIERRI: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpia, Mutiolo, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga.

TOLOSALDEA: Abaltzisketa, Aduma, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoien, Billabona, El-duain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Gaztelu, Legorreta, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.

UROLA-KOSTALDEA: Aizarnazabal, Aia, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa, eta Zumaia.

Datu-iturria: EUSTAT. (Egileak landuak).

2. Irudia: Goierriko udallerriak



Datu-iturria: EUSTAT

eskualdean, malkartsua eta mendi tontorrez josia dagoen erliebe hautsia da nagusi. Erizpide klimatikoak kontuan izanda, orokorrean eskualdeko klima epela da, urteko batezbesteko euri-kopurua 1300-1700 mm bitartekoa izaten delarik.

Goierrri, Oria eta Urola ibaien goi-ibilguan eratutako lurraldea da eta bertan bi zonalde bereizten dira argi eta garbi. Bata, Hegoekialdean, Aralar, Altzania eta Aizkorrik osatzen duten mendilerroa, andeakuntza nabarmenik gabe. Eta bestea, Iparraldean, atlantiar haranak, guztiz anderatuta dagoena, biztanleri eta industri eremuak hortxe kokatzen bait dira. Lehenean, Aralar, Altzania eta Aizkorri, pagadi zabalez beteta daude, alderik garaienetan larreak nagusi direlarik. Larre hauetan, neguan haranetako zelaietan bazkatzen duten abelburuak larratzen dituzte udan. Zonalde hau, paisaia, ekologi eta geologi ikuspegitik balio handiko eremua da. Eskualdearen gainerantzekoan, zelaia eta pinudia da nagusi, tartean haritzak eta sasia agertzen direlarik. Haran ondoetan topatzen dugu ingurune industrial eta hiritarra.

Natur Parke izendatzeko esperoan, Goierrin hiru gunek ditugu: Murumendi, Aralar eta Aizkorri.

BIZTANLERIAREN BILAKAERA

Aurreko orrialdeetan lan honen helburuak, metodologia eta testuingurua zehaztu ondoren, Goierriko eskualdean biztanleriak izan duen bilakaera aztertzen hasiko gara.

Goierriko biztanleriak azkeneko 125 urte hauetan goraka jo du (ikus 1. grafikoa eta 2. taula). 1860. urtean 24.214 biztanle zituen Goierri, eta 1986. urtean berriz 67.449 (7). Ugaltze hau 1950etik aurrera izan da nabarmenena. 1860-1986ko epealdian, beraz, 2,78tan ugartu dira biztanleak eskualde honetan, hazkunde-tasa 0,81ekoa izan delarik (8).

Hazkunde honen ondorioz, dena dela, Goierri, beste eskualde batzuk egin duten antzera, ez du Gipuzkoa (Gipuzkoak epealdi honetan 1,5eko hazkunde-tasa du) barruan duen portzentaia areagotzen (ikus 2. grafikoa eta 3. taula). 1860. urtean Gipuzkoako biztanleriaren % 14,89 goierritarra bazen, egun proportzio hori % 9,83ra jaitsi da. Beraz, Goierri eskualdeak herrialdean duen pisua gutxitu egin da aipaturiko epealdian. Aztertzen ari garen epealdi guztian, 1951-1960ko hamarkadan izan ezik, Gipuzkoako hazkunde-tasa Goierri eskualdekoarena baino handiagoa izan da beti.

Gainerako Gipuzkoako eskualdeen hazkundeari buruz, honako hau nabari da (ikus 3. irudia eta 3. grafikoa): badira 3 eskualde bere emendioa Goierrikoaren gainera izan dutenak (Donostialdea, Bidasoa-Behea, eta Deba Behea). Badira beste bi eskualde berriz Goierriko gorakadaren antzerakoa izan dutenak (Deba-Garaia eta Urola-Kostaldea). Eta Tolosaldea, azkenik, non Goierriko hazkundera baino txikiagoa eman den. Aipagarria da Tolosaldeak Gipuzkoarekiko izan duen portzentaia beharakada: 1860. urtean probintziako biztanleriaren %17,26 suposatzen bazuen, egun %6,62 besterik ez.


7. EUSTAT eta INEM-ek 1986ko Udal-Erroldari buruz eskaintzen dizkiguten emaitzak kontrajarriak dira. EUSTAT-entzat urte horretan Goierri 67.449 biztanlez osatua badago, INEM-ek eskualde honi 67.416 biztanle ematen dizkio. Beraz, 33 pertsonako aldea dago bi datu-iturrien artean. Aldakuntzak, Legazpi (biztanle bat gutxiago) eta Lazkao (32 biztanle gutxiago) udalerrietan azaltzen dira. Datu kontrajarri hauek Gipuzkoari dagokionez areagotu egiten dira, EUSTAT-ek eskainitako datuetan 1986an 685.840 gipuzkoar azaltzen badira, INEM-en emaitzetan 688.894 agertzen bait zaizkigu.

8. Hazkunde-tasaren kalkulurako honako formula hau erabili dugu:

$$T_c = \left(\frac{P_2}{P_1} \right)^{\frac{1}{t}} - 1 \times 100$$


ASKOREN ARTEAN: *Trabajos prácticos de geografía humana*, Síntesis, Madrid, 1988, 190-192. orr.

1. Grafikoa: Goierriko biztanleriaren bilakaera: 1860-1991 (9)



Datu-iturria: Biztanle-Zentruak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

2. Grafikoa: Gipuzkoako eskualdeen bilakaera. 1860-1991



Datu-iturria: 1860-1991 Biztanle-Zentsuak (Egileak landuak)

9. 1991ko Biztanle-Zentsuko emaitzak behin-behinekoak dira.

2. Taula. Gipuzkoako Eskualdeen Gertatzezko Biztanleriaren Bilakaera: 1860-1991.

ESKUALDEAK	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930
BIDASOA BEHEA	8.908	10.753	13.354	14.257	17.295	19.731	23.851
DEBA BEHEA	15.678	15.997	17.296	19.496	23.779	26.354	28.346
DEBA GARAIA	23.693	23.238	24.880	23.797	25.422	27.546	31.011
GOIERRI	24.214	24.698	23.880	23.189	25.522	27.570	30.976
DONOSTIALDEA	37.237	43.128	52.866	63.748	79.009	97.381	122.859
TOLOSALDEA	28.069	24.546	23.758	24.435	26.328	28.506	30.232
UROLA KOSTALDEA	24.749	24.847	25.811	26.928	29.329	31.469	35.054
GIPUZKOA	162.547	167.207	181.845	195.850	226.684	258.557	302.329

ESKUALDEAK	1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991(10)
BIDASOA BEHEA	20.362	27.319	38.395	55.531	62.093	64.721	67.699	67.534
DEBA BEHEA	29.085	34.820	55.879	65.750	67.888	65.815	61.613	58.622
DEBA GARAIA	32.164	35.720	44.851	61.050	65.963	66.338	65.272	63.479
GOIERRI	32.841	36.627	52.232	67.279	70.521	69.248	67.449	64.717
DONOSTIALDEA	149.244	164.544	204.279	283.050	312.044	319.860	317.266	311.505
TOLOSALDEA	31.823	35.039	37.861	44.027	45.679	46.463	45.525	44.491
UROLA KOSTALDEA	36.234	39.971	44.840	54.316	58.329	60.541	61.016	61.426
GIPUZKOA	331.753	374.040	478.337	631.003	682.517	692.986	685.840	671.774

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak).

3. Irudia: Gipuzkoako eskualdeen biztanleriaren hazkundera: 1860-1986 (%)



Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

10. Behin-behineko emaitzak dira.


3. Taula. Gipuzkoako Lurraldean Eskualdeei dagozkien ehunekoak: 1860-1991.

ESKUALDEAK	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930
BIDASOA BEHEA	5,48	6,43	7,34	7,27	7,62	7,63	7,88
DEBA BEHEA	9,64	9,56	9,51	9,95	10,48	10,19	9,37
DEBA GARAIA	14,57	13,89	13,68	12,15	11,21	10,65	10,25
GOIERRI	14,89	14,77	13,13	11,84	11,25	10,66	10,24
DONOSTIALDEA	22,90	25,79	29,07	32,54	34,85	37,66	40,63
TOLOSALDEA	17,26	14,68	13,06	12,47	11,61	11,02	9,99
UROLA KOSTALDEA	15,22	14,86	14,19	13,74	12,93	12,17	11,59
GIPUZKOA	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

ESKUALDEAK	1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991(11)
BIDASOA BEHEA	6,13	7,30	8,02	8,80	9,09	9,33	9,87	10,05
DEBA BEHEA	8,76	9,30	11,68	10,41	9,94	9,49	8,98	8,72
DEBA GARAIA	9,69	9,54	9,37	9,67	9,66	9,57	9,51	9,44
GOIERRI	9,89	9,79	10,91	10,66	10,33	9,99	9,83	9,63
DONOSTIALDEA	44,98	43,99	42,70	44,85	45,71	46,15	46,25	46,37
TOLOSALDEA	9,59	9,36	7,91	6,97	6,69	6,70	6,63	6,62
UROLA KOSTALDEA	10,92	10,68	9,37	8,60	8,54	8,73	8,89	9,14
GIPUZKOA	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak).

3. Grafikoa: Gipuzkoako eskualdeen gertatzeko biztanleriaren bilakaera: 1860-1991. (Zenb. Indiz.) Oinarria=1860 (12)



Datu-iturria: Biztanle-Zentruak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

11. Behin-behineko emaitzak dira.

12. 1991ko Biztanle-Zentsuko emaitzak behin-behinekoak dira.

Baina, Goierri eskualdeak azken 125 urte hauetan biztanleriaren hazkunde nabaria izan badu ere, hazkunde honek epealdi honetan abiadura desberdinak izan ditu. Jarraian, beraz, Goierri eskualdeko eta berau osatzen duten udalerrietako biztanleriaren bilakaera aztertzen dugu, lau aro edo garai bereiztuz (ikus 4. taula): lehena, 1860tik 1930era; bigarrena, 1930etik 1950era; hirugarrena, 1950etik 1975era; eta azkena 1975etik 1986ra.


1. Epealdia: 1860-1930

Epealdi honetan Goierri eta Gipuzkoa osoko biztanleriak emendio moderatua izan zuen. 1860an Goierriko biztanleria 24.214 pertsonak osatzen bazuten, 70 urte geroago 30.976 ziren (0,35eko hazkunde-tasa). Gipuzkoako biztanleria, berriaz, epealdi horretan, 162.547 biztanle izatetik, 302.329 izatera pasa zen (0,89ko hazkunde-tasa).

Biztanleriaren hazkundera aro desberdinetan banatuz: 1860-1877 bitartean, Goierriko hazkunde-tasa 0,11 eta Gipuzkoakoa 0,16koa da; 1877tik 1900era, -0,27 eta 0,68koa; eta azkenik, 1900-1930 artean, 0,96 eta 1,45koa.

Azpimarragarria da, lehenik, bai probintzian eta bai eskualdean, orokorrean, 1860tik 1877ra ematen den biztanleriaren hazkunde eskasa, industrializazio-prozesua jadanik era motel batean, baina hasia zegoela kontuan hartzen badugu (13). Goierriin, industrializazio modernoaren lehen urratsek berau kokatu zen guneetan izan zuten eragin demografiko nabarmena bakarrik. Beasainen, Ordizian eta Zumarragan, hain zuzen ere.

4. Irudia: Goierriko udalerrien zentso-arteak hazkunderik txikienaren epealdia: 1860-1986 (%)



Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

13. Euskal Herrian (Bizkaian eta Gipuzkoan) industria modernoaren hasiera 1841-1873 bitartean kokatzen da.

4. Taula. Goierriko Udalerrien Gertatzezko Biztanleriaren Bilakaera: 1860-1991.

UDALERRIAK	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930
ALTZAGA (14)	218	206	208	178	182	192	207
ARAMA	103	119	123	124	113	136	147
ASTIGARRETA	320	289	256	225	255	193	—
ATAUN	2.919	2.819	2.676	2.663	2.658	2.581	2.446
BEASAIN	1.448	2.144	2.030	1.932	2.973	3.775	5.260
EZKIO-ITSASO	1.742	1.632	1.446	1.396	1.338	1.241	923
GABIRIA	1.074	993	924	836	844	894	864
GAINTZA	493	453	403	390	364	334	309
GUDUGARRETA	91	84	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	1.694	1.581	1.528	1.423	1.424	1.430	1.326
ITSASONDO	623	575	549	525	569	623	734
LAZKAO	1.069	1.057	1.000	947	1.176	1.314	1.588
LEGAZPI	1.320	1.303	1.310	1.246	1.293	1.382	1.898
MUTILOA	523	568	564	524	583	482	432
OLABERRIA	466	485	456	486	521	564	529
ORDIZIA	1.197	1.481	1.364	1.421	2.318	3.059	4.423
ORMAIZTEGI	722	618	626	639	633	631	684
SEGURA	1.531	1.540	1.556	1.278	1.357	1.344	1.293
URRETXU	989	1.013	1.076	1.110	1.151	1.510	1.727
ZALDIBIA	1.220	1.223	1.221	1.205	1.261	1.413	1.451
ZEGAMA	2.487	2.193	2.102	2.055	2.007	1.870	1.803
ZERAIN	572	586	595	552	560	516	452
ZUMARRAGA	1.393	1.736	1.867	2.034	1.942	2.086	2.480
GOIERRI	24.214	24.698	23.880	23.189	25.522	27.570	30.976
GIPUZCOA	162.547	167.207	181.845	195.850	226.684	258.557	302.329

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak).

Hazkunde txiki horren arrazoiak ugariak dira, besteak beste: krisi ekonomikoa (15), 2. Karlistada, emigrazioa, eta Madriletik Irunarteko trenbide-erai-kuntzan (1858-1864) ibilitako langileen etxeratzea (16). Azken faktore honekin erlazonaturik esan behar, Ormaiztegi, trenbide ondoko goierritar eta gipuzkoar udalerrri batzuk bezala (besteak beste, Zegama, Gabiria eta Itsasondo), galera demografiko inportantea jasan zuela, aztertzen ari garen epealdiko zentsu-arte-ko atzerakadarik handiena alegia (17) (ikus 4.irudia).

Gipuzkoa 2. Karlistadaren bukaerarekin batera hasi zen aurreko urteetako motelaldi demografikoa gainditzen. Eta XX. mendearen hasieran, eta aurreko

14. Altzaja Itsasondo udalerritari lotua egon zen bitarteko datuak: 1970ean 193 biztanle; 1981ean 113; eta 1986an 96.

15. HERNÁNDEZ MARCO, J. L.; PIQUERO, S.: «Demografía e industrialización en el País Vasco», in *La industrialización en el norte España*, EHU-Crítica, Bartzelona, 1988, 216. orr.

16. CASTELLS, L.: op. cit., 160-167. orr.

17. Serapio Mugicak garai horretako Ormaiztegi buruz emaniko azalpenean argi eta garbi azaltzen zaigu udalerrri honek trenbidearen eraikuntza dela eta jasan zuen eraldaketa, MUGICA, S.: *Geografía general del País Vasco-Navarro. Provincia de Guipúzcoa*, u.g., 129. orr.

1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991 (18)
204	230	248	—	—	—	—	89
155	144	205	206	193	175	164	138
—	—	—	—	—	—	—	—
2.448	2.535	2.884	2.307	2.119	1.959	1.822	1.691
4.986	5.423	7.610	10.095	10.925	12.112	12.496	12.080
957	934	1.051	764	630	583	583	530
792	838	665	645	509	492	470	428
356	309	275	213	173	124	122	115
—	—	—	—	—	—	—	—
1.156	1.712	2.055	1.995	2.017	2.064	2.039	1.974
727	781	908	1.099	983	832	752	638
1.657	1.817	2.960	4.214	5.025	5.099	5.167	5.056
2.763	4.010	6.343	9.716	10.143	10.558	9.703	9.318
442	415	381	297	252	233	183	180
457	497	999	1.528	1.547	1.430	1.261	1.079
4.335	4.796	6.800	9.380	10.327	9.525	9.252	8.971
716	767	1.004	1.189	1.145	1.246	1.286	1.197
1.300	1.267	1.748	1.632	1.545	1.417	1.380	1.309
2.187	2.804	4.877	6.077	6.865	6.430	6.340	6.024
1.622	1.594	1.920	1.988	1.864	1.776	1.696	1.509
1.882	1.857	2.043	1.752	1.623	1.540	1.461	1.270
489	407	359	328	246	240	231	227
3.210	3.490	6.897	11.854	12.390	11.413	11.041	10.894
32.841	36.627	52.232	67.279	70.521	69.248	67.449	64.717
331.753	374.040	478.337	631.003	682.517	692.986	685.840	671.774

urteetan ezarritako oinarrietan finkaturiko industrialtze-prozesua indartu eta bizkortu zen aro berri baten testuinguruan (19), biztanleriaren hazkunde-abiadura biziki handitu zen.

Garapen industrial honi esker, Gipuzkoa emigraziogune izatetik inmigraziogune izatera pasatzen da. Aurrerantzean, eta mende honetako 70. hamarkadararte, Gipuzkoak migrazio-saldo positiboak izaten ditu. Dena dela, garai horretan, Bizkaiarekin konparatuz gero, Gipuzkoan ez da etorkin multzo handiegirik finkatzen (20).


Hilkortasunaren jaitsierak ere, zerikusi handia du urte horietan ematen den garapen demografikoarekin, jaiotza-tasak oraindik altu samarrak bait ziren. Beraz, zera azpimarra dezakegu: hamarkada batzuk lehenago Bizkaiari ematen hasi zen etengabeko hazkunde bizi batean oinarritutako Iraultza Demografikoa, Gipuzkoan XX. mende-hasieran gauzatzen hasten dela.

18. Behin-behineko emaitzak dira.

19. HERNÁNDEZ MARCO, J. L.; PIQUERO, S., op. cit., 206-221. orr.

20. Gipuzkoako enpresak txikiak edo tamaina ertainekoak zirenez, Gipuzkoako langileria hein handi batetan gipuzkoarrez osatu zen.

5. Irudia: Gipuzkoako eskualdeen zentso-arteko hazkunderik txikienaren epealdia: 1860-1986 (%)



Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

Goierrri eskualdeak, bestalde, jadanik industrializazioaren lehen urratsak eman bazituen ere (burdingintza Beasainen, 1860an; trenbidea, 1863-64ean; al-tzairugintza Zumarragan, 1887an), 1877-1900eko epealdia ez zuen zuzpertzegaraia izan. Demografikoki garai hori beste eskualde batzuetan bezain kritikoa izan zen Goierrin (ikus 5. irudia). Biztanleriaren atzerakada seguraski 2. Karlistada ondoren arrazoi politiko eta ekonomikoengatik gertatu zen emigrazioaren gehitzearekin (21), eta Gerra Karlista bukatu ondoren, Behe Goierriko industriguneek izan zuten krisi ekonomiko eta demografikoarekin lotuta legoke (22) (ikus 4. irudia).

Beraz, Goierrin, eta taula desberdinetako datuek azaltzen digutenez, XX. mende-hasierararte ez zen aparteko garapen demografikorik eman. Dena dela, mende honetako lehen 30 urteetan hazkunde industrialala dela medio, Gipuzkoan bezala Goierrin ere, gorakada demografiko garrantzitsua eman zen, Goierrin hazkunde demografikoaren abiadura motelxeagoa izan zen arren.

Goierrriko garapen industrial berri hau, hein handi batetan Ordizia eta Beasaingo udalerrietan kokatzen da. Udalerri hauetan burdingintza eta trenbidearen hedapenarekin batera, beste enpresa batzuk ere sortu ziren, hala nola, industria elektromekanikoak, galdategiak eta baita industria kimikoak ere (23). 1920an, bestalde, Legazpin «Patricio Echevarria S.A.» (PESA) sortu zen.

21. CASTELLS, L., op. cit., 165-166. orr.


22. LÓPEZ GONZÁLEZ, M. A.: «Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goierri: la fábrica de hierros de Beasain», in *Euskal Herriaren Historiari Buruzko Biltzarra. II. Euskal Mundu Biltzarra, Komunikazioak liburukia*, Gasteiz, 1987, 1109-1126. orr.

23. GONZALO, J.; LÓPEZ, M. A.; URTEAGA, M.: «Burdinoletatik fabriketara», in *Beasain. Udalerri gipuzkoar baten historia*, Beasain, 1987, 91-93. orr.

Aro honetan Goierri eskualdeak izandako garapen demografikoa aztertu ondoren, eskualde barruko gorabehera demografikoak azalduko ditugu. Industriadazio-testuinguru honetan, biztanleriaren hazkundera, industria kokatzen den udalerrietan gertatzen da (Beasain, Ordizia, Zumarraga, Legazpi eta Urretxu). Nekazal udalerri guztietan berriz, batipat nekazal exodoa dela eta biztanle-kopurua jaitsi egiten da (24). Bi multzo hauez gain, industriaguneen inguruan kokaturik, eta beraien eraginpean, hazkunde motel bat zuten udalerriak aurkitzen dira (Lazkao, Zaldibia, Arama, Olaberria). Ziurraski, udalerri hauetako nekazariek kasu askotan herria utzi gabe fabrikako lanari ekiten zioten.

Ondorioz, industrigune garrantzitsuetan eman ziren hazkunderik aipagarrienak. Hain zuzen, Beasainen eta Ordizian. Udalerri hauek, XX. mende-hasieran ezagutu zituzten aztertzen ari garen epealdiko zentsu-arteak hazkunderik altuenak. Hain zuzen, 50 eta 60. hamarkadetan baino garrantzitsuagoak (ikus 6. irudia). Beraz, Goierri, biztanleriaren ugaltzea industriaren hazkuntzari hertsiki lotuta doakio.

6. Irudia: Goierriko udalerrien zentsu-arteak hazkunderik handienaren epealdia: 1860-1986 (%)



Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

24. Nekazal exodo horren aipamen paregabea San Gregoriokoa (Ataun): «San Gregorio-parrokiak orain 18 urte (1906an) 1124 biztanle zituen; gaur, (1924an) 900 bat 117 familietan: oietan nekazari 75 (orain 40 urte 101): gaiñerakoei «aittelume» esaten zitzaen, au da, beste lanbideetatik bizi ziranak. Emendik, 18 urte auetan atera diran 17 famili nekazariak, 2 edo 3 ez besteak, fabrika-inguruetan jarri dira bizitzen, nekazaritza erabat utzita», BARANDIARAN IRIZAR, L.: *Jose Miguel De Barandiaran. Patriarca de la cultura vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1983, 275. orr. Aipatu, bestalde, Astigarreta udalerria, 1860-1920 bitartean %60ko biztanle galera izan ondoren, Beasain udalerriari batu (1929) zitzaiola. Arriaran, jadanik, Itsasotik aldendu eta Beasain udalerriari lotuta zegoen (1927).

2. Epealdia: 1930-1950

Epealdi honetako urteak, Goierriko eta Gipuzkoako bilakaera demografikoan transizio urteak dira.

Alde batetik, krisi ekonomikoaren eta Gerra Zibilaren eraginez, 30. hamarkadan, XX. mende-hasieran hasitako hazkunde-abiadura moteldu egin zen (25), bai Gipuzkoan (0,93ko hazkunde-tasa) eta baita Goierriin ere (0,58ko hazkunde-tasa). Hazkunde hau, dena dela, joera orokorraren kontra, Goierri Garaiko udalerrietan industri hazkuntzaren inguruan eman zen biztanle-ugaltzeari dagokio (eskualde osoak 1930-40 artean, 1865 biztanleko hazkuntza bazuen, Goierri Garaiko udalerriek, osoki hartuta, 2055 biztanleko hazkundea izan zuten). Goierri Beheko industrigune tradizionalak, bien bitartean, krisi ekonomiko eta demografikoa jasan zuten (26). Nekazalgune gehienek, berriz (Olaberria, Idiazabal eta Gabiria dira salbuespenak), «nekazaltze edo erruralizazioari» (landagunetatik industriguneetarako mugimenduaren etena) esker, biztanle-galerarik ez zuten izan. Azpimarragarria da, Gaintza udalerriaren hazkundea (%15,21); esan behar, aztertzen ari garen epealdi osoko bere hazkunde-une bakarra dela.

Bestalde, 40. hamarkadan gerra aurreko hazkunde-abiadura berreskuratu egin zen (Gipuzkoarentzat 1,20ko hazkunde-tasa, eta Goierrirentzat 1,09ko hazkunde-tasa), nolabait ere ondorengo hamarkadetan eman zen ikaragarritzko hazkunde iragarritz. Berrogeigarren hamarkadako igoera hau industrigune tradizionalak bereganatu zuten gehienbat, Goierri Garaikoek neurri handiago batean eta Goierri Behekoek berriz neurri txikiagoan. Beasain eta Ordiziako inguru hurbilean kokaturiko hainbat udalerritan ere, hazkunde horrek eragina izan zuen. Hauen artean, Idiazabalek izan zuen hazkundea da aipatzekoa: %48,09 (27). Nekazalguneak, berriz, era apal batean baina, berriro ere, biztanleak galtzen hasi ziren. Gaintzak jasandako galera azpimarratu beharra dago (%-13,20).

3. Epealdia: 1950-1975

Berrogeitamargarren hamarkadatik aurrera, bilakaera demografikoa erabat aldatu zen, nola eskualde-mailan hala probintzi mailan ere. Goierriko biztanleria 25 urte hauetan ia %50 gehitu zen (ikus 1. grafikoa), 2,65eko hazkunde-tasa izanez. Epealdi honetan, Goierriko Gipuzkoak baino biztanleriaren hazkunde-tasa altuagoa izan zuen (Gipuzkoako hazkunde-tasa, 2,43). Aurreko urteetan gertatu zenarekin erkatzen badugu, handitze harrigarri honek iraganean ez zuela parekorik izan esan behar.

Hazkundearen abiadura bizkortzearen arrazoirik nagusia, 50 eta 60. hamarkadetan Goierriin hedatutako industrialteak erakarrirako inmigrazio-uholdean

25. Bidasoa-Behean, geldialdi edo moteltze hau atzerakada garrantzitsu bihurtu zen.

26. 1931. urtean 29ko «KraK»aren ondorioz, CAF-en zeuden 2000 langile ingurutatik 1500 bat kaleratuak izan ziren. 1932an, berriz, Beasain udalerriak CAF-etik kaleratutako kanpoko langileei beren jaioterrietara itzultzeko bidaia ordaindu zien, GONZALO, J.; LÓPEZ, M.A.; URTEAGA, M., op.cit., 94-95. orr.

27. Idiazabalgo udalerriaren biztanleriaren hazkundearen arrazoiak bi lirateke: Patrizio Etxeberriaren lima-fabrika sortzea 1942an (1940-50 bitartean Idiazabalera 429 kanpotar etorri ziren), eta 1947an Segura udalerriko auzoa zen Urtsuaran Idiazabal udalerriari lotzea (1950.urteko Nomenclator-aren arabera Urtsuaranek urte horretan 165 biztanle zituen), IPARRAGIRRE, I.: *Cinco villas del Alto Goierri*, Aurrezki-Kutxa Munizipala, Donostia, 1975, 108-113. orr.

datza, alde batetik, eta bestetik, berezko hazkunderak (batipat, «baby-boom» delakoaren ondorioz) jasan zuen igoeran. Ez dugu ahaztu behar, etorri berri ziren etorkinak bestalde, adin emankorrean zeudela. Dena dela, 50. hamarkada hasierako ikaragarritzko hazkunderaren abiadura biziki apaldu zen, 1970-1975 urteetarako krisi ekonomikoa zela kausa. Hazkunde-abiaduraren moteltze hau, Goierriin, Deba-Behea eskualdearekin batera, Gipuzkoako gainerako eskualdeetan baino nabarmenagoa izan zen.

Bestalde, aipatu, Goierriko eskualdeak aro honetako hazkunderik handiena 50. hamarkadan izan zuen bitartean, Gipuzkoak eta berau osatzen duten eskualde gehienek, gehikuntzarik altuena 60. hamarkadan izan zutela (ikus 7. irudia).

Jarraian, aro honetako epe desberdinetan Goierriko udalerriek izan duten bilakaera demografikoa aztertzeari lotuko gaitzaizkio. Lehenengo hamarkadan, Goierri eskualdeak hazkunderik handiena izan zuen hamarkadan, ia Goierriko udalerrri guztiek (Gaintza, Zerain, Gabiria eta Mutiloa ezik) nolabaiteko biztanleriaren emendioa izan zuten (ikus 6. irudia) (28). Zumarraga, Olaberria, Urretxu, Lazkao eta Legazpi udalerrietan eman ziren ugaltzerik azpimarragarrienak.

60. hamarkadan, eta hazkunde-abiadura altua izanik ere, aurreko hamarkadan baino motelxeagoa izan zen. Emendiorik izan ez zuten udalerrri bakarrak, alde batetik, industrigune tradizionalen inguruan kokaturiko batzuk izan ziren (Segura, Idiazabal); eta bestetik, une honetatik aurrera etengabeko despulaketa-prozesu garrantzitsu bat jasan zuten nekazalguneak (ikus 4. irudia). Testuinguru

7. Irudia: Gipuzkoako eskualdeen zentso-arteak hazkunderik handienaren epealdia: 1860-1986 (%)



Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

28. 50.hamarkadan Ezkio-Itsaso eta Ataun bezalako nekazalguneek ere, inmigrazio jendetsu horren eragina ere jasan zuten. Baina gertakizuna behin- behinekoa izan zen. Etorkinek, etxebizitzarazoa konpondu ondoren, hiriguneetara edota hauen inguru hurbileko udalerrietara alde egin bait zuten, ASKOREN ARTEAN: *Ataun*, Aurrezki-Kutxa Munizipala, Donostia, 1975, 118-119. orr.

honetan, Alzaga udalerria desagertu (1967) egin zen; eta Ezkio eta Itsaso udal-lerriek bat egin zuten (1965). Kontuan izan, bestalde, 70. hamarkadaren hasieran, Zumarraga eta Beasain 10.000 biztanle izatera iritsi zirela; urte batzuk geroago, Legazpi eta Ordizia biztanle-kopuru hori gainditzera iritsi zirelarik.

Azkenik, 1970-75 urteetan, hazkunde-abiadura moteltzearekin, hiri eta industrigune tradizionalen hazkundera moteldu egin zen, eta hauen inguru hurbileko udalerrri ia guztiek galerak izan zituzten (Zaldibia, Itsasondo, Arama, Ormaiztegi).

4. Epealdia: 1975-1986

Epealdi honetan, aurreko urteetako bilakaera demografikoa erabat etenda gelditu zen, Goierriko biztanleria etengabeko atzeratze-prozesu batean murgilduz. Gipuzkoako gainerako eskualdeetan ere, biztanleriaren atzeratze-prozesu bat edota hazkunde txikia eman zen.

Goierriko eskualdean 1975ean 70.521 pertsona bizi baziren, Gipuzkoan berriz 682.517; handik hamaika urtetara, 67.449 eta 685.840 ziren. Hamaika urte horietan, Goierriko urteko -279,2 biztanleko hazkunde negatiboa jasan zuen bitartean, Gipuzkoak 302 pertsonako hazkunde positiboa izan zuen. Urte horietako Goierriko hazkunde-tasa -0,40koa izan zen, eta Gipuzkoakoa, berriz, 0,04koa.

Biztanleriaren bilakaera berri baten adierazle den egoera hau, jaiotze-tasen jaitziera bortitzaren (%50 inguru) eta migrazio-mugimenduaren norabide-aldaketaren ondorio da (Goierri eta Gipuzkoan, urte horietan, kanpora joaten zirenek etortzen zirenek baino kopuru handiagoa osatu zuten). Bi gertakizun hauek krisi sozio-ekonomiko handi baten inguruan kokatzen den mentalitate-aldaketaren ondorio dira.

Azken epealdi honetako biztanleriaren galerak, Goierriko udalerrri gehienetan eman dira. Beasain, Lazkao, Ormaiztegi eta Idiazabal dira salbuespenak. Goierri Garaian, bestalde, krisi ekonomikoa gogorragoa izan dela antzematen da, biztanle-galerak Behe Goierriko industriguneetakoak baino nabarmenagoak izan bait dira (ikus 4. irudia). Gaintza, Mutiloa, Olaberria eta Itsasondo udalerriek jasaten dituzte biztanle-galerarik nagusienak.


Egun, atzeratze demografiko honetan murgilduta jarraitzen dugu. Biztanleriaren hazkundera bultzatu duen faktorea (industria) krisian dagoen bitartean, zail ikusten da bilakaera demografikoaren hazkunde-norabidea aldatzea, eta 1991ko Biztanle-Zentsuko behin-behineko datuek ez dute bestelakorik adierazten.

5. Ondorioak

Eskualdea osatzen duten 21 udalerriek izan duten bilakaera demografikoa kontuan izanik, hiru talde bereiz ditzakegu (ikus 8. eta 9. irudiak, eta 4. grafikoa).


Batetik, hazkunde handia izan duten udalerrriak daude: Beasain, Ordizia, Lazkao, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi. Udalerrri hauetan kokatu izan da normalean industria eta, ondorioz, etorkinek ere gune horietara jo izan dute hein handi batetan. Egun, eskualdeko udalerririk garrantzitsuenak dira, hirigune bihurtu direlarik (konurbazio gertakizuna azalduz). 1860an, Goierriko eskualdearen %30,61 suposatzen bazuten, egun %80,02 suposatzen dute.

8. Irudia: Goierriko udalerrien biztanleriaren hazkundera: 1860-1986 (%)



Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

9. Irudia: Goierriko udalerriak beraien hazkunderaren arauera: 1860-1986




Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

5. Taula. **Goierrri Eskualdean Udalerriei dagozkien ehunekoak: 1860-1991.**

UDALERRIAK	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930
ALTZAGA	0,90	0,83	0,87	0,76	0,71	0,69	0,66
ARAMA	0,42	0,48	0,51	0,53	0,44	0,49	0,47
ASTIGARRETA	1,32	1,17	1,07	0,97	0,99	0,70	—
ATAUN	12,05	11,41	11,20	11,48	10,41	9,36	7,89
BEASAIN	5,98	8,68	8,50	8,33	11,64	13,69	16,98
EZKIO-ITSASO	7,19	6,60	6,05	6,02	5,24	4,50	2,97
GABIRIA	4,43	4,02	3,86	3,60	3,30	3,24	2,78
GAINZA	2,03	1,83	1,68	1,68	1,42	1,21	0,99
GUDUGARRETA	0,37	0,34	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	6,99	6,40	6,39	6,13	5,57	5,18	4,28
ITSASONDO	2,57	2,32	2,29	2,26	2,22	2,25	2,36
LAZKAO	4,41	4,27	4,18	4,08	4,60	4,76	5,12
LEGAZPI	5,45	5,27	5,48	5,37	5,06	5,01	6,12
MUTILOA	2,15	2,29	2,36	2,25	2,28	1,74	1,39
OLABERRIA	1,92	1,96	1,90	2,09	2,04	2,04	1,70
ORDIZIA	4,94	5,99	5,71	6,12	9,08	11,09	14,27
ORMAIZTEGI	2,98	2,50	2,62	2,75	2,48	2,28	2,20
SEGURA	6,32	6,23	6,51	5,51	5,31	4,87	4,17
URRETXU	4,08	4,10	4,50	4,78	4,50	5,47	5,57
ZALDIBIA	5,03	4,95	5,11	5,19	4,94	5,12	4,68
ZEGAMA	10,27	8,87	8,80	8,86	7,86	6,78	5,82
ZERAIN	2,36	2,37	2,49	2,38	2,19	1,87	1,45
ZUMARRAGA	5,75	7,02	7,81	8,77	7,60	7,56	8,00
GOIERRI	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

Datu-iturria: *Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak.* (Egileak landuak).

4. Grafikoa: **Ataun, Beasain, Gaintza, Ormaiztegi, Urretxu eta Zaldibiako udalerrien gertatzezko biztanleriaren bilakaera: 1860-1991 (29)**
(Zenb. Indiz.) Oinarria=1860



Datu-iturria: *Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak.* (Egileak landuak.)

29. 1991ko Biztanle-Zentsuko emaitzak behin-behinekoak dira.

1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991 (30)
0,62	0,62	0,47	—	—	—	—	0,13
0,47	0,39	0,39	0,30	0,27	0,25	0,24	0,21
—	—	—	—	—	—	—	—
7,45	6,92	5,52	3,42	3,00	2,82	2,70	2,61
15,18	14,80	14,56	15,00	15,49	17,49	18,52	18,66
2,91	2,55	2,01	1,13	0,89	0,84	0,86	0,81
2,41	2,28	1,27	0,95	0,72	0,71	0,69	0,66
1,08	0,84	0,52	0,31	0,24	0,17	0,18	0,17
—	—	—	—	—	—	—	—
3,51	4,67	3,93	2,96	2,86	2,98	3,02	3,05
2,21	2,13	1,73	1,63	1,39	1,20	1,11	0,98
5,04	4,96	5,66	6,26	7,12	7,36	7,66	7,81
8,41	10,94	12,14	14,44	14,38	15,24	14,38	14,39
1,34	1,13	0,72	0,44	0,35	0,33	0,27	0,27
1,39	1,35	1,91	2,27	2,19	2,06	1,86	1,66
13,19	13,09	13,01	13,94	14,64	13,75	13,71	13,86
2,18	2,09	1,92	1,76	1,62	1,79	1,90	1,84
3,95	3,45	3,34	2,42	2,19	2,04	2,04	2,02
6,65	7,65	9,33	9,03	9,73	9,28	9,39	9,30
4,93	4,35	3,67	2,95	2,64	2,56	2,51	2,33
5,73	5,07	3,91	2,60	2,30	2,22	2,16	1,96
1,48	1,11	0,68	0,48	0,34	0,34	0,34	0,35
9,77	9,52	13,20	17,61	17,56	16,48	16,36	16,83
100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00


Bigarren taldean, biztanleriari eutsi edota era apal batean gehitu duten udal-erriak dauzkagu: Olaberria, Itsasondo, Idiazabal, Zaldibia, Arama, Segura eta Ormaiztegi. Lehenengo taldeko udalerrien inguru hurbilean kokaturik, industrial-tze-prozesuak haietan izandako hedapenez eta asetasunaz baliatu dira beraien hazkunde demografikoa gauzatzeko. 1860an, Goierriren %26,23 suposatzen bazuten, 1986an %12,68 suposatzen dute.

Hirugarren taldea, biztanle-galera handiak jasan dituzten udal-erriek osatzen dute: Mutiloa, Gabiria, Gaintza, Ataun, Ezkio-Itsaso, Alzaga, Zegama eta Zerrain. Industrigune eta hiriguneetatik urrun, nekazal izakerako inguruneetan kokaturik, bailara baztertuetan edo mendialdean aurkitzen diren udal-erriak. 1860an Goierriko eskualdearen %41,38 suposatzen bazuten; 1986an, berriz, %7,2.

Bilakaera desberdin honen erruduna industrializazioa izan da. Goierriin, salbuespenak salbuespen (Zegama, Ezkio-Itsaso), industriaren hazkundera eta biztanleriaren ugaltzea loturik joan dira. Honela (ikus 5. taula eta 5. grafikoa), industriaurreko garaietan (1860), eskualdean demografikoki garrantzirik handiena zuten udal-erriak, Ataun, Zegama, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Segura eta Beasain baziren, industrialtzearen etorrerarekin hauetako udal-erri gehienak indarra galtzen

30. Behin-behineko emaitzak dira.

5. Grafikoa: Udalerrien bilakaera. 1860-1991



Datu-iturria: 1860 eta 1991 Biztanle-Zentsuak (Egileak landuak)

joan ziren, eta, egun (1986), Goierriko udalerririk jendetsuenak Beasain, Zumarraga, Legazpi, Ordizia, Urretxu eta Lazkao ditugu. Udalerririk industrialduenak, alegia.

BIZTANLERIAREN BANAKETA

Ondorengo orrialdeetan, Goierriko biztanleriaren kokalekuaren araberako banaketa aztertzen dugu, batez ere azken hamarkadetan gertaturiko aldaketak azpimarratuz. Aldaketa hauek egungo Goierriko biztanleriaren banaketan desoreka sortu dute: biztanleriarik gehiena udalerrri gutxi batzutan pilatu da, gainerako udalerrietan biztanleria oso urria delarik.

Desoreka honen faktoreak bi lirake: herri gutxi batzutan kokatu den industrialitze-prozesua, alde batetik, eta honen inguruan eman diren migrazio-mugimenduak, bestetik. Kontuan izan behar dugu, industrialitzearen aurretik nekazal iharduera bazen biztanleria leku jakinetan finkatzen zuena, mende honetan zehar industrialitzea izan dela.

1. Udalerrri-kopuruaren bilakaera

Goierriin, beste hainbat eskualdetan bezala, industrialitze-prozesuaren ondorioz, nekazal exodoa gertatzen da; eta gertakizun honek nekazalguneen despopulaztea eta udalerrien desagertzea ekartzen du. 6. taulan azaltzen denez, 1860. urtean Goierriin 24 udalerrri zeuden eta Gipuzkoan 93. Egun, Goierriin 21 udalerrri ditugu (%-12,50) eta Gipuzkoan, berriz, 87 (%-6,46) (31).

Udalerrien desagerketa-prozesua, 6. eta 7. tauletan ikus daitekeenez (32), 60. hamarkadan ematen da batipat. Hain zuzen, aipaturiko nekazal exodoa areagotzen den unean: garai horretan, Gipuzkoan, guztira 11 udalerrri desagertzen dira, eta horietatik hiru Goierri eskualdean.

Bestalde, azpimarratu, Gipuzkoan, 1860-1986 epealdian, udalerrien desagertze-prozesu hau hiru eskualdetan bakarrik ematen dela (ikus 10. irudia): Goierriin, Tolosaldean eta Donostialdean. Lehenengo bi eskualdeetan gertakizuna ne-

31. Bai Goierri eta bai Tolosaldeak duten udalerrri-bilketa handiak (Gipuzkoako udalerrrien ia %60, lurraldez %30 inguru direnean) zantzu historikoak ditu, BARRENA, E.: *La formación histórica de Guipúzcoa*, Cuadernos Universitarios, Departamento de Historia, 5. zk. (1989), Donostia, 370-372. orr.

32. 1887ko Biztanle-Zentsuan Pasaiaiko udalerrria ez da azaltzen, Pasaia Donibane eta Pasaia San Pedro «udalerrriak» baizik. 1900. go Biztanle-Zentsuan ordea, berriro Pasaia udalerrria agertzen da.

kazal exodoari lotua dago; Donostialdean, berriz, hiriburuaren hedapen-nahiaren ondorio izan da (33).

6. Taula. Gipuzkoa eta Goierriko Udalerrri-Kopuruaren Bilakaera: 1860-1991.

	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930
GOIERRI	24	24	23	23	23	23	22
GIPUZKOA	93	92	91	90	90	90	89

	1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991
GOIERRI	22	22	22	20	20	20	20	21
GIPUZKOA	88	87	87	81	81	81	83	87

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak).

7. Taula. Gipuzkoako Udalerrri Desagertuen Zerrenda: 1860-1991.

UDALERRIAK	Garaia	Udalerrri Berria	Azken Zentsuko Biztanleria
Altza	1930-40	Donostia	5.425
Altzaga	1960-70	Itsasondo	248
Astigarraga	1940-50	Donostia	1.796
Astigarreta	1920-30	Beasain	193
Baliarrain	1960-70	Iruerrieta	180
Bidania	1960-70	Bidegoian	615
Ezkio	1960-70	Ezkio-Itsaso	592
Gaztelu	1960-70	Leaburu-Gaztelu	256
Goiaz	1960-70	Bidegoian	200
Gudugarreta	1877-87	Beasain	84
Igeldo	1860-77	Donostia	522
Ikaztegieta	1960-70	Iruerrieta	400
Itsaso	1960-70	Ezkio-Itsaso	459
Leaburu	1960-70	Leaburu-Gaztelu	640
Orendain	1960-70	Iruerrieta	439
Sorabilla	1877-87	Andoain	234

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

Dena den, azkeneko urte hauetan (1981-1991), udalerrien desagerketa-prozesua eten egiten da, eta askatzeen ondorioz, Bizkaian gertatu den antzera, Gipuzkoan, eta baita Goierri eskualdean ere, udalerrri berriak sortzen dira. Hala nola, Altzaga, Astigarraga, Baliarrain, Ikaztegieta, Lasarte-Oria, Mendaro eta Orendain.

33. 1939.urtean, Altza eta Donostiaren baterakuntza-akordioak burutu ondoren, Pasaia eta Astigarrako udalak bere baitan hartzeko gestioak egiten hasten da Donostiako udala. Honek, interes berezia zuen udal baterakuntza hori egiteko, era honetan ehun mila biztanle izatera iritsi eta horrek berekin zekarren on ekonomiko gutzia eskuratzearen. Donostiak, Astigarragaren baterakuntza lortu zuen, Pasaiarena aldiz ez, IKERKA TALDEA: *Astigarraga*, Zarautz, 1990, 35-54. orr.

10. Irudia: Gipuzkoako udalerrri desagertuak: 1860-1991



Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

2. Hirigintza-prozesua

Lehenago aipatu dugun bezala, XIX. mendean hasi eta 50. hamarkadan areagotzen den prozesu industrialak, Goierriko biztanleriaren banaketan aldaketa handiak ekartzen ditu. Ondorioz, nekazal munduaren despopulaztea suertatzen da eta biztanleria hirigune eta industriguneetan pilatzen da.


Goierriin, 1860. urtean, 2.000 biztanlez azpiko 22 udalerrri bazeuden, Goierriko biztanleriaren %78 inguru biltzen zutela, 1986an 13 besterik ez daude, biztanleriaren %17 inguru biltzen dutelarik. Bi mila biztanlez gorako udalerrriak, aldiz, 2 bakarrik ziren 1860an eta biztanleriaren %22 biltzen zuten; eta 1986an 7 udalerrri dira, eta biztanleriaren % 83 biltzen dute. Beraz, 2.000 biztanlez azpiko udalerrriak gutxitu egin dira, bai kopuruz eta bai biltzen duten biztanleriaren hainbatekoan. Honela, egun, Goierriko biztanleriaren %80, 5.000 biztanlez gorako udalerrri gutxi batzuetan kokatua dago (ikus 8. eta 9. taulak, eta 6. grafikoa).

Dena dela, hirigintza-prozesua, krisi ekonomikoa dela eta, azken urteetan baretu egin da. Eta honela, 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriek biltzen duten biztanleriaren hainbatekoak gora egin du: 1975ean %15,1, 1986an %16,8 eta 1991an (behin-behineko emaitzak) %19,1. Hau da, biztanleriaren biltze-maila gutxitzeko joera nabaria da.

Hirigintza-prozesuaren ondorioz, Goierriko eskualdean hiriburuarekiko autonomia duen hiri-eredua ere sortu da (34). Gaur egungo Goierriko hiri-hierar-

34. GURRUCHAGA, A.; PÉREZ-AGOTE, A.; UNCETA, A.: *Estructura y procesos sociales en el País Vasco*, 1. liburukia, EHU, Bilbo, 1990, 178. orr.

6. Grafikoa: Goierriko biztanle kopurua udalerrri tamainaren arabera: 1860-1975



Datu-iturria: 1860 eta 1975eko Udal-Errolda (Egileak landuak)

kizazioa hiru mailatan banatuko genuke: lehenengo mailan, eskualdeko ardatz bihurtu diren hiri edo industrigune garrantzitsuenak egongo lirateke (Beasain, Ordizia eta Lazkao, eta Zumarraga, Urretxu eta Legazpi). Hirugarren maila batean, landaguneak (Ezkiio-Itsaso, Mutiloa, Zerain, Gabiria, Ataun, Gaintza, Altzaga, Arama). Eta bigarrenean, tartekoak (ikus 11. eta 12. irudiak).

8. Taula. Goierriko Udalerrri-Kopurua Tamainaren Arabera: 1860-1986.

TAMAINA	1860	1900	1930	1950	1975	1986
0 - 500	6	5	5	6	4	5
501 - 2.000	16	15	13	10	8	8
2.001 - 5.000	2	3	3	5	2	1
5.001 - 100.00	0	0	1	1	2	4
10.001 - 25 000	0	0	0	0	4	2
25.001 - 50.000	0	0	0	0	0	0
UDALERRI KOPURUA	24	23	22	22	20	20


Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

9. Taula. Goierriko Biztanle-Kopurua Udalerrien Tamainaren Arabera (%): 1860-1986.

TAMAINA	1860	1900	1930	1950	1975	1986
0 - 500	6,9	6,0	4,9	5,4	1,2	1,7
501 - 2.000	70,6	64,8	47,8	31,5	13,9	15,1
2.001 - 5.000	22,3	29,1	30,1	48,1	5,8	3,0
5.001 - 100.00	0,0	0,0	16,9	14,8	16,8	45,1
10.001 - 25 000	0,0	0,0	0,0	0,0	62,0	34,8
25.001 - 50.000	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
UDALERRI KOPURUA	24	23	22	22	20	20


Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

11. Irudia: Gaur egungo Goierriko hiri-hierarkizazioa



Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

12. Irudia: Goierriko udalerrien biztanleria: 1981



Datu-Iturria: 1981eko Biztanle-Zentsua. (Egileak landua)


Beraz, bi dira eskualde hau osatzen duten udalerriek polarizatzen dituzten hiriguneak: Beasain-Ordizia-Lazkao, eta Zumarraga-Urretxu-Legazpi. Biak, Euskal Hiri-Sistemaren hierarkian, 4. mailako hiriguneak dira: «Eskualdeko Egitura-Buruak» delakoak. Ondorioz, eskualde honen izaera bizefalikoa da. Bi hirigune hauek, Gabiria, Ezkio-Itsaso eta Ormaiztegi udalerrien polarizazioa konpartitzen dute, eskualdeko gainerantzeko udalerriak Beasain-Ordizia-Lazkao inguruan mugitzen direlarik. Bestalde, hirigune honek, Tolosa udalerriarekin batera, Legorreta (Tolosaldea) udalerraren polarizazioa ere konpartitzen du. Hirigune hau da, bere erakarmen-ahalmen eta N-1aren alboan egonik, Eskualdeko Egituraren buru.

3. Dentsitatearen bilakaera

Goierriko biztanleriaren banaketak 1860-1986 bitarteko epealdian jasandako desoreka, argi ikus daiteke Goierriko udalerrien dentsitatearen bilakaera aztertuz. Beraz, biztanleriaren banaketa espazialaren berri sakonago izan nahian, eskualdeko dentsitatearen bilakaera argitzea komenigarri zaigu.

Goierriko eskualdearen dentsitatea 1860an, 69,12 bizt./km² zen (Gipuzkoa baino piska bat baxuagoa). 13. irudian ikus daitekeen bezala, Goierriko udalerrri gehienen dentsitatea Goierriko eskualdeak zuen horren antzekoa zen. Dentsitate handieneko (100+) udalerrriak Urretxu, Ordizia, Segura, Alzaga eta Ormaiztegi ziren (lehen hirurak hiribildu erdiarorrak izanak). Beraz, garai hartako Goierriko biztanleria, nekazal mundu bati dagokioenez, nahiko era orekatsu eta homogeno batean banatua zegoen.


13. Irudia: Goierriko udalerrrien dentsitate-tasak: 1860



Datu-iturria: 1860ko Biztanle-Zentsua. (Egileak landua)
Lurmuga bezala, 1991ko udalerrrien zerrenda hartu dugu.

Egun, Goierri eskualdearen dentsitatea 192,54 bizt./km² da, Gipuzkoako batezbestekoaren azpitik, eta industrialtzeak ekarritako desorekaren ondorioz, kontrasteak dira nagusi (ikus 14. irudia): udalerri batzuek dentsitate oso altua dute (Ordizia, Urretxu, Zumarraga, Beasain, ...), eta beste batzuek oso baxua (Gaintza, Mutiloa, Zerain, ...).

14. Irudia: Goierriko udalerrien dentsitate-tasak: 1986



Iturria: 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landua).
Lurmuga bezala, 1991ko udalerrien zerrenda hartu dugu.

BIZTANLERIAREN EGITURA

Biztanle-kopuruaren gorakada eta biztanleriaren banaketaren bilakaera ikusi ondoren, demografi alorreko beste garrantzizko gertaera bat aztertuko dugu jarraian. Hain zuzen, Goierriko biztanleriaren egituran izan diren aldaketak.

1. Biztanleria sexuaren arabera

Atal honetan, kopuru aldetik, gizonezko eta emakumezkoen erlazioa aztertu dugu. Horretarako «Gizonezkoen Tasa» erabili dugu (gizonezkoak/emakumezkoak).

Hemeretzigarren mende bukaeran, bai Gipuzkoan eta bai Goierri eskualdean, «Gizonezkoen Tasa» 100 baino txikiagoa zen, hau da, gizonezko baino emakume gehiago zegoen (ikus 10. taula). Goierriko udalerrien artean ere, gauza bera gertatzen zen (Ordizia da tasarik baxuena duen udalerria, ziurrena bere merkatal eta zerbitzu-izakeraren ondorioz); salbuespen bezala, Ormaiztegi azpimarratuko genuke batipat. Emakume gehiago izatearen zergatia, dudarik gabe, XIX. mendean bukaeran oraindik indartsu zirauen emigrazio mugimenduan legoke, batipat gizonezkoek emigratzen bait dute. Honela, 1877an 12.224 gizonezko zeuden Goierriin, eta 12.474 emakumezko; hamar urte geroago, 11.681 gizonezko (-543) eta 12.199 emakumezko (-275).

Egun (ikus 10. taula), Gipuzkoan «Gizonezkoen Tasa» 100 baino baxuagoa da, baina Goierriin, 103,46 da. Dena dela, Gipuzkoako tasa hori ez dago, XIX. mendean bezala, mugimendu emigratzaileari loturik; ziurrenera, Gipuzkoako probintziak bere osotasunean duen izakera hiritarrari baizik. Normalean, hiriguneetan emakumezkoak gizonezkoak baino ugariago dira, landaguneetan alderantzizkoa gertatzen delarik. Horren azalpena honako hau litzateke: nekazal giroan, emakumeek, gizonezkoek baino lanerako aukera gutxiago izanik, zonalde hori utzi egin behar izaten dute. Baina, ez beti; esate baterako, hor daukagu Zerain udalerriaren kasu adierazkorra («Gizonezko Tasa»: 89,34).

10. Taula. Goierriko Biztanleria Sexuaren Arabera.

UDALERRIAK	1887			1986		
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizon. Tasa	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizon. Tasa
ALTZAGA	105	103	101,94	51	45	113,33
ARAMA	62	61	101,63	84	80	105,00
ASTIGARRETA	124	132	93,93	—	—	—
ATAUN	1.345	1.331	101,05	936	886	105,64
BEASAIN	1.014	1.016	99,80	6.334	6.162	102,79
EZKIO-ITSASO	712	734	97,00	295	288	102,43
GABIRIA	462	462	100,00	261	209	124,88
GAINTZA	195	208	93,75	71	51	139,21
GUDUGARRETA	—	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	741	787	94,15	1.033	1.006	102,68
ITSASONDO	266	283	93,99	335	321	104,36
LAZKAO	483	517	93,42	2.650	2.517	105,28
LEGAZPIA	649	661	98,18	5.049	4.654	108,48
MUTILOA	278	286	97,20	91	92	98,91
OLABERRIA	227	229	99,12	644	617	104,37
ORDIZIA	630	734	85,83	4.538	4.714	96,26
ORMAIZTEGI	325	301	107,97	638	648	98,45
SEGURA	732	824	88,83	695	685	101,45
URRETXU	515	561	91,80	3.245	3.095	104,84
ZALDIBIA	578	643	89,89	897	799	112,26
ZEGAMA	1.046	1.056	99,05	742	719	103,19
ZERAIN	288	307	93,81	109	122	89,34
ZUMARRAGA	904	963	93,87	5.601	5.440	102,95
GOIERRI	11.681	12.199	95,75	34.299	33.150	103,46
GIPUZKOA	89.708	92.137	97,36	338.065	347.775	97,20

Datu-iturria: 1887ko Biztanle-Zentsua eta 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landuak)

2. Biztanleria adinaren arabera

Bai Goierriko eta bai Gipuzkoako biztanleria 1877an gaztea zen; dudarik gabe, jaiotza-tasa altuekin loturiko gertakizuna (ikus 11. taula). Honela, biztanleriaren ia erdiak 20 urte baino gutxiago zituen, zaharren kopurua handia ez zelarik. Goierriko udalerrri batzutan (Astigarreta, Altzaga, Gaintza), biztanleriaren erdiak baino gehiagok 20 urte baino gutxiago zuen. Gazte-portzentaiarik baxuena Ordizian aurki genezake (%40,1).

Hemeretzigarren mendearen bukaeran behaturikoaren alderantziz, egun, emaitzak bestelakoak dira, eta gazte kopuruak zaharrenari erruz irabazten dion arren, biztanleria itxuraz etenik gabeko zahartze prozesu batean murgildua dago, jaiotza-tasen beherakada bortitza dela eta. Eta hau, bai Gipuzkoa mailan, eta bai Goierri eskualdearen kasuan (ikus 11. taula).

Udalerrri bat zahartua dagoela esaten dugu, bertako 65 urtez gorako pertsonen kopurua %15 baino gehiagokoa denean. Eta egoera honetan aurkitzen dira Goie-

11. Taula. **Goierriko Biztanleria Adinaren Arabera (%)**.

UDALERRIAK	1877			1986		
	0 - 19	20 - 60	61 +	0 - 19	20 - 64	65 +
ALTZAGA	50,9	40,2	8,7	21,4	59,2	19,3
ARAMA	45,3	42,8	11,7	25,0	59,4	15,6
ASTIGARRETA	50,8	38,7	10,3	—	—	—
ATAUN	46,5	43,4	10,0	24,1	61,5	14,4
BEASAIN	47,3	45,0	7,6	30,4	61,0	8,6
EZKIO-ITSASO	46,6	41,6	11,7	23,7	60,5	15,8
GABIRIA	46,9	41,2	11,7	25,1	57,5	17,5
GAINTZA	50,5	39,5	9,9	19,0	61,7	19,0
GUDUGARRETA	44,0	45,2	10,7	—	—	—
IDIAZABAL	48,1	42,5	9,2	30,4	57,3	12,2
ITSASONDO	48,8	40,6	10,4	25,9	61,5	12,5
LAZKAO	47,2	42,9	9,8	31,4	61,6	6,9
LEGAZPIA	45,5	43,6	10,7	29,9	61,5	8,5
MUTILOA	43,6	43,6	12,6	20,9	56,1	23,0
OLABERRIA	49,0	40,6	10,3	28,3	64,5	6,7
ORDIZIA	40,1	49,8	9,9	29,0	60,0	11,0
ORMAIZTEGI	42,0	46,6	11,3	30,3	59,4	10,3
SEGURA	44,6	43,3	12,0	26,7	58,9	14,5
URRETXU	44,7	48,0	7,2	30,2	61,1	8,7
ZALDIBIA	47,9	41,7	10,2	26,2	59,5	14,3
ZEGAMA	47,3	44,2	8,4	24,2	60,5	15,3
ZERAIN	45,7	43,8	10,4	21,0	57,9	21,0
ZUMARRAGA	44,1	46,0	9,7	29,9	61,4	8,6
GOIERRI	46,1	43,8	9,9	29,4	60,9	9,7
GIPUZKOA	43,9	46,6	9,3	29,9	59,3	10,8

Datu-iturria: 1877ko Biztanle-Zentsua eta 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landuak)

rriko udalerrri asko (ia guztiak nekazalguneak): Altzaga, Arama, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Mutiloa, Zegama eta Zerain. Hauetako batzuetan (Gaintza, Zerain, Mutiloa), zahar-portzentaia gazte-portzentaia adina edo handixeagoa da.

3. Biztanleria adin eta sexuaren arabera: adin-piramidea

Adin-piramideak biztanleria jakin baten bilakaera demografikoa ezagutzeko tresna egokiak dira. Honela, 1986ko adin-piramidea aztertuko dugu ondoren (ikus 12. taula eta 7. grafikoa).

Ohizko gertakizun naturalak aparte utzirik (gizonezkoen jaiotza eta hilkor-tasun altuagoak), piramide horretan azaltzen diren zabalketa eta estunerik adierazgarrienak azalduko ditugu.

Adin-piramideko hiru estune aipatuko genituzke bereziki: lehenengoa, 65-69 urteko taldean, batez ere gizonezkoetan, 1918ko gripearen eta Gerra Zibilaren eraginez. Bigarren estunea, 40-44 eta batipat 45-49 urteko taldeetan, bai ema-


12. Taula. **Goierriko Biztanleriaren Egitura Adin eta Sexuaren Arabera: 1986.**

ADINA	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
0 - 4	1.919	2,77	1.779	2,57
5 - 9	2.609	3,77	2.454	3,55
10 - 14	2.976	4,31	2.775	4,01
15 - 19	3.160	4,57	2.948	4,27
20 - 24	3.220	4,66	3.159	4,57
25 - 29	2.945	4,26	2.714	3,93
30 - 34	2.525	3,65	2.199	3,18
35 - 39	2.463	3,56	2.199	3,18
40 - 44	2.144	3,10	2.034	2,94
45 - 49	2.068	2,99	2.017	2,92
50 - 54	2.577	3,73	2.199	3,18
55 - 59	2.168	3,14	2.052	2,97
60 - 64	1.640	2,37	1.517	2,19
65 - 69	963	1,39	1.202	1,74
70 - 74	765	1,10	1.082	1,56
75 - 79	540	0,78	833	1,20
80 - 84	276	0,39	542	0,78
85 +	122	0,17	245	0,35

Datu-iturria: 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landuak)

kumezkoei eta bai gizonezkoei dagokienez. Hauek Gerra Zibilean eta gerra ostean jaiotako belaunaldiak ditugu. Azkenik, hirugarren estunea piramidearen oinarrian legoke, 70. hamarkadaz geroztik eta batipat azkeneko urte hauetan eman den jaiotza-tasaren jaitsiera nabarmenaren ondorioz.

7. Grafikoa: **Goierriko biztanleriaren piramidea: 1986**



Datu-iturria: 1986ko Biztanle-Zentsua. (Egileak landua)

Bestalde, piramideko bi zabalune aipatu nahi nituzke: batetik, 10-14, 15-19, 20-24 eta 25-29 adin-taldeetan ematen dena, 1955-75 urte bitartean izan zen jaiotza-tasa altuagatik («baby boom») hain zuzen ere; eta bestetik, batez ere 50-54 urteko taldean eta 55-59 bitartekoan ere ematen dena, gizonaekoetan nabar-menagoa delarik, dudarik gabe, 50-70eko hamarkadetako inmigrazio masiboaren ondorioa.

Beraz, duela urte batzu, eskualdeko piramideak itxura piramidala bazuen, egun, erronbo itxura hartzen ari da. Eta azken urte hauetako jaiotza-tasa txikiek jarraitzen badute, biztanleria etengabeko zahartze-prozesuan izango da.

4. Biztanleria eta euskara

Atal honetan, azken 130 urteetan Goierri eskualdean eta oro har Gipuzkoa herrialdean burutu den deseuskalduntze prozesua aztertuko dugu. Euskara eta

13. Taula. Goierriko Bi Urte eta Gehiagoko Biztanleria, Euskara Mailaren Arabera (%).

UDALERRIAK	1981			1986		
	Euskal-dunak	Ia-Euskal-dun	Erdaldun	Euskal-dunak	Ia-Euskal-dun	Erdaldun
ALTZAGA	—	—	—	98,9	0,0	1,0
ARAMA	85,7	4,0	10,2	89,2	1,2	9,4
ASTIGARRETA	—	—	—	—	—	—
ATAUN	96,6	1,2	2,1	96,6	0,8	2,5
BEASAIN	42,3	19,1	38,4	47,4	9,9	42,5
EZKIO-ITSASO	92,9	2,7	4,2	92,3	4,2	3,4
GABIRIA	95,8	1,6	2,4	98,4	0,4	1,1
GAINTZA	98,3	1,6	0,0	100,0	0,0	0,0
GUDUGARRETA	—	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	83,7	4,3	11,8	87,0	8,5	4,3
ITSASONDO	90,4	7,5	2,0	79,2	12,0	8,7
LAZKAO	47,2	14,4	38,2	52,2	14,1	33,6
LEGAZPI	41,0	16,8	42,1	46,2	19,7	34,0
MUTILOA	92,9	3,0	3,9	92,6	3,1	4,1
OLABERRIA	42,0	6,5	51,3	41,2	18,7	40,0
ORDIZIA	44,5	17,9	37,4	47,9	18,0	34,0
ORMAIZTEGI	67,3	9,4	23,2	81,1	3,9	14,8
SEGURA	81,1	3,9	14,8	84,0	11,5	4,4
URRETXU	38,0	10,8	51,1	42,2	20,6	37,1
ZALDIBIA	79,2	5,0	15,6	83,5	5,7	10,7
ZEGAMA	89,6	2,3	7,9	91,7	2,7	5,5
ZERAIN	90,2	7,5	2,1	99,1	0,4	0,4
ZUMARRAGA	29,9	12,5	57,4	33,0	15,3	51,6
GOIERRI	48,6	13,4	37,9	52,0	14,1	33,9
GIPUZKOA	41,7	15,8	42,4	43,7	17,0	39,4

Datu-iturria: 1981eko Biztanle-Zentsua eta 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landuak)

euskal kultura elkarrengandik bereiztea zaila izanik, euskal kultura, euskara bezala, Goierrin kultura nagusia izan da. Hala ere, Euskal Herri osoan gertatu den bezala, Goierrin ere euskararen atzerakada eta akulturazio-prozesua begibistakoa izan da.

Iraultza Industrial eta Demografikoa gertatu aurreko euskal hiztunen kopuruaren estatistikarik fidagarrienak L. Velasco (1866-1868) emanikoak dira (35). Ikertzaile honen garaietan, Gipuzkoako bizilagunen %96,42 euskalduna zen, eta Goierrin ere euskaldungoaren proportzioa antzerakoa izango zela pentsa genezake. Esan daiteke, beraz, XIX. mende-bukaeran, Goierrin eta Gipuzkoan euskara nagusi zela, ia biztanle guztiak euskaldunak bait ziren.

Handik hona zer gertatu den ikusteko, aski da gaur egungo datuak aztertzea (ikus 13. taula). 1986ko Erroldako datuen arabera, goierritarren erdiak euskal-

14. Taula. **Goierriko Biztanleriaren Jatorrizko Hizkuntza eta Hizkuntz Gaitasuna (%)**: 1986.

UDALERRIAK	Jatorrizko Ama-Hizkuntza			Hizkuntz-Gaitasuna		
	Euskara	Euskara eta Gaztelania	Gaztelania	Euskaldun	Ia-Euskaldun	Erdaldun
ALTZAGA	—	—	—	—	—	—
ARAMA	91,25	0,62	8,12	89,02	1,29	9,67
ASTIGARRETA	—	—	—	—	—	—
ATAUN	95,54	0,86	3,53	96,72	0,72	2,49
BEASAIN	37,54	7,35	53,22	47,45	9,97	42,55
EZKIO-ITSASO	89,49	1,18	8,47	92,26	4,28	3,43
GABIRIA	95,24	0,43	3,88	98,65	0,44	0,89
GAINTZA	100,00	0,00	0,00	100,00	0,00	0,00
GUDUGARRETA	—	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	81,01	3,08	13,68	87,11	8,59	4,27
ITSASONDO	81,22	3,83	12,38	81,84	10,35	7,77
LAZKAO	43,40	4,68	48,59	52,36	14,10	33,49
LEGAZPI	40,77	5,54	53,13	46,32	19,67	34,00
MUTILOA	92,34	0,51	1,53	92,62	3,15	4,21
OLABERRIA	42,06	1,73	54,22	41,28	18,67	40,01
ORDIZIA	40,46	9,72	47,98	47,92	18,02	34,03
ORMAIZTEGI	74,92	3,94	20,35	81,55	3,73	14,68
SEGURA	85,33	0,21	12,29	84,34	11,35	4,28
URRETXU	34,29	9,58	55,08	42,43	20,56	36,97
ZALDIBIA	79,76	1,64	17,53	83,59	5,64	10,75
ZEGAMA	90,91	3,07	5,87	92,03	2,59	5,34
ZERAIN	98,71	0,00	1,28	99,10	0,44	0,44
ZUMARRAGA	27,78	6,55	65,63	33,05	15,39	51,51
GOIERRI	45,63	6,22	46,77	51,99	14,08	33,92
GIPUZKOA	38,32	6,42	53,49	43,76	16,98	39,27

Datu-iturria: 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landuak)

35. VELASCO, L.: *Los euskaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Bartzelona, 1879, 479-490. orr.

dunak dira (%52,0). Gipuzkoa, berriz, erdaldunagoa da (euskaldunen proportzioa, %43,7). Edozein modutan ere, ez da ahaztu behar, taulan ederki asko ikus daitekeenez, Goierri eskualdean udalerrri hiritartu eta industrialenak direla euskaldun proportziorik gutxienekoak (hain zuzen, etorkin gehien jaso duten udalerrriak): Zumarraga (%33,0), Olaberria (%41,21), Urretxu (%42,2), Legazpi (%46,2), Beasain (%47,4), Ordizia (47,7), eta Lazkao (%52,2). Gainerantzeko udalerrrietan, aldiz, euskaldungoaren proportzioa ia guztietan %80tik gora dabil.

Beraz, aurreko gizaldiko eta gaur egungo datuak konparatuz, begibistakoa da mende honetan euskaldungoaren atzerapausu adierazgarria. Dena dela, badi-rudi erdalduntze-prozesu hau azken urte hauetan eten egin dela, eta, kuantitatiboki bederen, euskalduntze-prozesu batean murgildurik gaudela, bai Goierri eskualdean eta baita Gipuzkoan ere. Honela (ikus 13. taula), 1981eko Biztanle-Zentsuko eta 1986ko Udal-Erroldako datuak aztertuz eta konparatuz, euskaldungoak gora egin duela ikus daiteke: %48,6tik %52ra Goierriin, eta %41,7tik %43,7ra Gipuzkoan. Joera hau Goierri osoan eman da, Itsasondo udalerrian izan ezik (kontuan izan behar da, 1986ko datuetan, Alzaga Itsasondotik banandua azaltzen zaigula). 14. taulak ere joera hori baieztatzen du, euskararen transmisioa berrindartu egin dela.

Ez da ahantzi behar, bestalde, gaur egungo euskalduna, XIX. mendeko gehienak ez bezala, elebiduna dela; hau da, erdara ere badakien euskalduna. Aurreko mendeko egoera oso bestelakoa zen; L. Velasco-ren eritziz, iragan mende-bukaeran, Gipuzkoan euskaldungoaren ia %80 elebakarra zen: «De las 176.297 almas que poblaban Guipúzcoa al realizar este acensamiento (1866-1868), creo bastante exacto calcular, por los datos adquiridos, que las 170.000 hablaban el vascuence y entre ellas las 140.000 hacían uso exclusivo de esta lengua en sus diarias relaciones» (36).

Beraz, argi dago ehun urte pasatxo hauetan gertatu den deseuskalduntze-ekintza, bai Gipuzkoan baita Goierri eskualdean ere. Erdalduntze gogor honen arrazoiak ugariak izan dira. Azpimarragarrienak, besteak beste: industrialtzea eta honek ekarritako etorkin-uholde arrotza (kontuan izan, egun, udalerrri industrial eta hiritartuenak direla deseuskaldunenak), errepresio eta debekuak, sistema politiko nahiz bertako jauntxoan erdalzaletasuna, utzikeria, euskararekiko kontzientzia eza, derrigorrezko soldaduska, eskola erdalduna, tresna instituzional eta politikorik eza, emigrazioa, e.a.

5. Hizkuntza eta hezkuntza

Euskararen egoeran zuzenean eragiten duen eta eragin izan duen faktoreetariko bat hezkuntzarena da; eskolarena, hain zuzen ere. Gerra aurreko eginahalak ahaztu gabe, euskal eskola gertaera berria da, nahiz ikastolak orain dela 30 urte baino lehenago sortu. Ezin esan daiteke «eskola euskaraz» gertaera hedatua izan denik azken bospasei urterarte.

Hori horrela, hurrengo pasartean hezkuntzaz eta alfabetatzeaz hitz egiterakoan, eta bestelakorik adierazten ez den bitartean, gaztelerazko hezkuntzaz eta alfabetatzeaz hitz egiten dugula ulertu behar da.

36. INTXAUSTI, J.: *Euskara. Euskaldunon hizkuntza*, Eusko Jaurilaritza, Gasteiz, 1990, 125. orr.

Atal honetan, lehenik, ikasketa-maila argitzen saiatuko gara, analfabetismo-tasen azterketaren bitartez. 15. taulan agertzen denez, azken mende honetan analfabetismoak izugarritzko beherakada izan du. 1887an, Goierriko biztanleriaren %58,5 analfabetoa bazen (Gipuzkoan,%54,1), 1986ean %0,5 besterik ez. Badirudi, gainera, datozen urteetan ere, analfabetismoak jaisteko joera horretan jarraituko duela (ikus 16. taula). Honela, gaur egun, hamar urte eta gehiagoko goierritarren artean (ikus 17. taula), tituludunak ia %60 dira: OHO (%35,5), LH-BBB (%18,3), eta Goi-mailakoak (%4,5). Antzeko emaitzak ikus daitezke Gipuzkoan. Udalerri udalerri, Mutiloa (%55,1 titolorik gabea), eta Urretxu (%26,1 titolorik gabea eta %51,6 OHODuna) udalerriak azpimarratuko genituzke.

Aipatu, bestalde, bai XIX. mende-bukaeran eta bai XX. mende-amaieran, analfabetismo-tasa emakumezkoetan altuxeagoa izan dela. Horren arrazoa begibistakoa da; hain zuzen ere, hezkuntzan emakumezkoek jasan duten bazterketaren ondorioa da.

15. Taula. **Goierriko Gaztelerazko Analfabetismo-Tasak (%) (37).**

UDALERRIAK	1887			1986		
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
ALTZAGA	15,8	13,9	29,8	—	—	0,1
ARAMA	14,6	23,5	38,8	—	—	0,0
ASTIGARRETA	29,2	28,1	57,4	—	—	—
ATAUN	37,5	40,3	77,9	—	—	0,0
BEASAIN	24,5	27,3	51,9	—	—	0,1
EZKIO-ITSASO	26,6	30,0	56,7	—	—	0,0
GABIRIA	32,1	43,6	75,7	—	—	0,0
GAINTZA	22,0	23,0	45,1	—	—	0,0
GUDUGARRETA	—	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	30,3	35,1	65,5	—	—	0,3
ITSASONDO	30,6	31,5	62,1	—	—	0,6
LAZKAO	24,5	28,2	52,7	—	—	0,3
LEGAZPI	24,3	33,2	57,6	—	—	0,8
MUTILOA	29,6	34,3	64,0	—	—	0,0
OLABERRIA	20,8	26,0	46,9	—	—	0,0
ORDIZIA	19,2	19,5	38,7	—	—	0,6
ORMAIZTEGI	24,7	28,2	53,0	—	—	0,7
SEGURA	26,2	28,9	55,2	—	—	0,2
URRETXU	20,1	27,5	47,6	—	—	0,9
ZALDIBIA	27,8	28,8	56,6	—	—	0,8
ZEGAMA	34,3	33,8	68,1	—	—	0,2
ZERAIN	23,1	31,2	54,4	—	—	0,0
ZUMARRAGA	24,6	28,9	53,6	—	—	1,3
GOIERRI	27,4	31,0	58,5	0,1	0,4	0,5
GIPUZKOA	25,9	28,2	54,1	0,2	0,5	0,7

Datu-iturria: 1887ko Biztanle-Zentsua eta 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landuak).

37. Analfabetismo-Tasak kalkulaterakoan, biztanleria guztia hartu dugu kontuan.

Hemeretzigarren mendearen azken aldera, bai Goierri eta bai Gipuzkoan dauden analfabetismo-tasak (beste euskal lurraldeen antzera), Espainiako Estatuaren tasak (%68, 1887an) baino baxuagoak ziren (38). Eta horren zergatia euskal eskualdeek irakaskuntza garatzeko zuten autonomian datza.

16. Taula. **Goierriko Analfabetismo-Tasak: 1970-1986** (39).

URTEA	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
1970	1,6	0,5	1,0
1975	1,7	0,6	1,1
1981	1,2	0,4	0,8
1986	0,5	0,1	0,4

Datu-iturria: EUSTAT: *Demografi Seriak. 1970-86*, Eusko Jaurlaritz, Gazteiz, 1990. (Egileak landuak).

17. Taula. **Goierriko Hamar Urte eta Gehiagoko Biztanleria Lortutako Titulazioaren Arabera (%)**:1986.

DALERRIAK	Alfabetatu gabea	Titulurik gabea	OHO	LH-BBB	Goi-mailakoa
ALTZAGA	1,0	52,6	35,4	10,7	0,0
ARAMA	0,0	48,2	30,6	19,7	1,3
ASTIGARRETA	—	—	—	—	—
ATAUN	0,0	44,1	32,9	17,8	5,0
BEASAIN	0,1	36,9	37,1	20,7	5,1
EZKIO-ITSASO	0,0	48,0	28,9	20,0	2,9
GABIRIA	0,0	45,5	35,5	15,4	3,3
GAINTZA	0,0	51,7	34,4	12,0	1,7
GUDUGARRETA	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	0,3	41,6	39,7	15,1	3,0
ITSASONDO	0,6	41,3	39,7	13,5	4,8
LAZKAO	0,3	40,2	34,9	19,4	5,0
LEGAZPI	0,9	49,4	26,6	18,3	4,6
MUTILOA	0,0	55,1	30,6	11,9	2,2
OLABERRIA	0,0	32,6	44,3	19,0	3,9
ORDIZIA	0,7	35,7	37,6	21,0	4,8
ORMAIZTEGI	0,9	39,3	34,7	20,9	4,9
SEGURA	0,2	43,5	32,9	17,2	6,0
URRETXU	1,1	26,1	51,6	16,6	4,4
ZALDIBIA	0,9	38,9	42,6	14,3	5,5
ZEGAMA	0,2	49,3	35,3	12,3	2,6
ZERAIN	0,0	56,7	28,6	12,1	2,4
ZUMARRAGA	1,4	47,7	29,8	16,7	4,1
GOIERRI	0,6	40,8	35,5	18,3	4,5
GIPUZKOA	0,8	40,2	31,7	21,1	5,9

Datu-iturria: 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landuak).

38. DÁVILA BALSERA, P.: «El proceso de alfabetización en el País Vasco (1860-1930), in *Euskal Herriaren Historiari Buruzko Biltzarra. II. Euskal Mundu Biltzarra, Komunikazioak liburukia*, Gasteiz, 1987, 1833-34bis. orr.

39. Analfabetismo-Tasak kalkulaterakoan, biztanleria guztia hartu dugu kontuan.

Goierriko udalerrien artean, 1887an, analfabetismo-tasarik baxuenak zituzten udalerriak hauek ziren: Altzaga (%29,8), Ordizia (%38,7), Arama (%38,8) eta Gaintza (%45,1). Altuenak zituztenak, berriz: Ataun (%77,9), Gabiria (%75,7) eta Zegama (%68,1). Nekazalgunea izan arren, aipagarria da Altzaga udalerraren kasua. Alde batetik, garai hartako Gipuzkoako analfabetismo-tasarik txikiena duen udalerrria delako; eta bestetik, emakumezkoen analfabetismo-tasa gizonaezkoena baino baxuagoa delako (azken berezitasun hau beste udalerrri batzuetan ere ematen da: Astigarretan eta Zegaman). Beharbada, Altzaga eta bere inguruko beste udalerrri batzuetan ematen den analfabetismo-tasa txikien gertakizuna (Baliarrain: %32,7; Arama: %38,8; Gaintza %45,1; Abaltzisketa: %45,9; Orendain: %46,2), garai batetako Baliarraingo Prezeptoriaren eraginean legoke. Gipuzkoako beste nekazalgune batzuetan ere ematen da analfabetismo-tasa txikien gertakizun hau: Gaztelu (%31,16), Bidania (%33,72), Goiaz (%41,2), eta Oresa (%41,6).

Bestetik, aipatu behar, eskaintzen (?) zaizkigun datuen arabera, egun, nekazalguneetako analfabetismo-tasak industriaguneetakoak baino baxuagoak direla, kasu gehienetan analfabetismo-tasa %0,00 delarik.

Atal honen hasieran aipatu dugun ildoari jarraituz, adierazi orain arte eskaini ditugun datuak, analfabetismo-tasak, gaztelerazko alfabetatze prozesuarenak direla. Honen arrazoia zera da: XIX. mendean, Espainiar Estatu Zentral Burgesa eraikitzen ari zenean birdefinitu zen eskolan (Moyano Legea, 1857), euskara baztertua eta zokoratua (eraztuna, inspektoreak) izan zela. Euskara eskoletatik baztertua izan zen, eta ondorioz, biztanleriaren alfabetatze-prozesua gaztelaniaren bidez eman zen. Beraz, zentsuetan azaltzen zaizkigun datuak gaztelerazko alfabetatzeari lotuak daude.

Dena dela, gaztelerazko alfabetatzearen ondoan, euskarazko alfabetatze bat ere eman zen (40). Alfabetatze hau, alde batetik, elizaren bidez ematen da, kristau-ikasbidearen bitartez; eta bestetik, gerra aurretik euskara eskoletara eramateko ahalegin teoriko eta praktikoetatik: auzo-eskolak (Lazkaomendiko eskolak, adibidez) eta gerra aurreko ikastolak (41). Baina, eliza eta eskola hauen inguruan euskarazko alfabetatze-prozesu bat eman zen arren, ez dugu uste gertakizun hau oso zabala eta eraginkorra izan zenik.

Euskarazko alfabetatzeari buruzko gaur egungo datuak aztertuz (42), goierriar euskaldunen %67,7 (Gipuzkoan %65,6) euskaldun alfabetatuak dira. Udalerriz udalerrri: Altzaga (%58,7), Arama (%95,7), Ataun (%86,8), Beasain (%83,0), Ezkio-Itsaso (%51,8), Gabiria (%95,2), Gaintza (92,6), Idiazabal (%72,4), Itsasondo (%66,2), Lazkao (%81,5), Legazpi (%60,2), Mutiloa (%41,2), Olaberria (%27,6), Ordizia (%65,0), Ormaiztegi (%59,5), Segura (%53,5), Urretxu (%54,8), Zaldibia (%55,2), Zegama (%43,5), Zerain (%34,8), eta Zumarraga (%70,5). Euskaldun alfabetatuak euskaraz ondo ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten dakiten pertsonak izanik, emaitza hauek altuegiak, puztuak iruditzen zaizkigu. Aurrerapausuak eman direla onartu arren, bai euskara eskola-mundura zabaltzen eta bai bestelako alfabetatze-prozesuetan, datu oso eztabaidagarriak iruditzen zaizkigu. Dena dela, datuak oker edo ondo egon, ez

40. DÁVILA BALSERA, P., op. cit., 1832bis. orr.

41. INTXAUSTI, J.: *Euskara. Euskaldunonhizkuntza*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 1990, 137-140. orr.

42. *1986ko Udal-Errolda*. Egileak landua.

dago dudarik euskarazko alfabetatzeak goranzko joera erakusten duela datozen urteei begira. Euskarazko irakasterereduen goranzko joerak ere horixe bera nabarmentzen du. Honela, 1986-87 ikasturteetik 1990-91ko ikasturtera (ikus 18. taula), Goierriko eskoletan euskal adarrek gora jo dute (43). Ondorioz, «B» eredu (irakaskuntza elebiduna) %22,2tik %27,5era pasa da (Gipuzkoan %15,5etik %21,5era), eta «D» eredu (irakaskuntza guztia euskaraz) %46,2tik %54,2ra (Gipuzkoan %32,3tik %37,0ra). Aldiz, «A» (euskara gai bezala) ereduak beherantz jo du: %31,0tik %18,1era (Gipuzkoan %50,9tik %40,5era), eta «X» (euskararen irakaskuntzarik gabe) eredu desagertu egin da. Azken eredu hau Gipuzkoan oraindik ez da desagertu (%0,8).

Analfabetismo-prozesuak aztertu ondoren, hezkuntzarekin zerikusia duten beste hainbat datu azalduko dugu. Adibidez, 1986ko Udal-Erroldako erantzunen arabera (ikus 19. taula), Goierriko bi urte eta gehiagoko biztanleriaren artean,

18. Taula. Goierriko Unibertsitate-Aurreko Ikasleak Irakastereduaren Arabera (%): 1986-1987.

UDALERRIAK	Guztira	A	B	D	X
ALTZAGA	0	0,0	0,0	0,0	0,0
ARAMA	0	0,0	0,0	-0,0	0,0
ASTIGARRETA	—	—	—	—	—
ATAUN	230	0,0	0,0	100,0	0,0
BEASAIN	3.488	29,1	25,4	45,4	0,0
EZKIO-ITSASO	0	0,0	0,0	0,0	0,0
GABIRIA	22	0,0	0,0	100,0	0,0
GAINTZA	0	0,0	0,0	0,0	0,0
GUDUGARRETA	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	294	10,2	0,0	89,7	0,0
ITSASONDO	61	0,0	0,0	100,0	0,0
LAZKAO	988	18,4	26,0	55,5	0,0
LEGAZPI	1.846	17,2	37,7	45,0	0,0
MUTILOA	0	0,0	0,0	0,0	0,0
OLABERRIA	52	61,5	38,4	0,0	0,0
ORDIZIA	2.973	36,8	17,0	43,6	2,3
ORMAIZTEGI	291	0,0	0,0	100,0	0,0
SEGURA	195	33,3	0,0	66,3	0,0
URRETXU	2.908	38,27	15,8	45,9	0,0
ZALDIBIA	210	7,6	0,0	92,3	0,0
ZEGAMA	170	4,7	0,0	95,2	0,0
ZERAIN	9	0,0	0,0	100,0	0,0
ZUMARRAGA	2.019	50,5	33,2	16,2	0,0
GOIERRI	15.756	31,0	22,2	46,2	0,4
GIPUZKOA	169.334	50,9	15,5	32,3	1,2

Datu-iturria: EUSTAT: *Irakaskuntzaren Estatistika: 86-87, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 40-49. orr.* (Egileak landuak).

43. 1990-91 ikasturteko emaitzak, EUSTAT: *Irakaskuntzaren Estatistika: 90-91, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 1992, 44. orr.* (Egileak landuak).

19. Taula. **Goierriko eta Gipuzkoako Bi Urte eta Gehiagoko Biztanleria Ikaslea eta Eskolatzeko-Tasak Adinari Jarraiki: 1986.**

ADINA	Goierri			Gipuzkoa		
	Guztira	Ikasleak	Eskolatzeko-Tasa	Guztira	Ikasleak	Eskolatzeko-Tasa
2 - 5	3.189	2.519	78,9	32.069	23.722	73,9
6 - 13	8.777	8.751	99,7	91.620	91.129	99,4
14 - 17	4.686	3.936	83,9	46.968	39.662	84,4
18 - 19	2.580	1.327	51,4	24.084	12.984	53,9
20 - 24	6.379	1.455	22,8	59.261	14.678	24,7
25 - 29	5.659	154	2,7	54.155	1.863	3,4
+ 30	36.372	36	0,9	366.621	506	0,1
GUZTIRA	67.642	18.178	26,8	674.778	184.544	27,3

Datu-iturria: 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landuak).

20. Taula. **Goierriko Bi Urte eta Gehiagoko Biztanleria Ikaslea Egiten Ari Den Ikasketen Arabera: 1986.**

UDALERRIAK	Guztira	OHO	LH-BBB	Goi-mailakoak
ALTZAGA	22	68,1	22,7	9,0
ARAMA	30	56,6	36,6	6,6
ASTIGARRETA	—	—	—	—
ATAUN	388	62,8	26,2	10,8
BEASAIN	3.449	65,7	23,8	10,4
EZKIO-ITSASO	125	62,4	18,4	19,2
GABIRIA	100	61,0	22,0	17,0
GAINZA	18	38,8	50,0	11,1
GUDUGARRETA	—	—	—	—
IDIAZABAL	529	72,9	22,4	4,5
ITSASONDO	151	62,9	26,4	10,5
LAZKAO	1.469	70,2	21,6	8,1
LEGAZPI	2.802	60,8	26,3	12,8
MUTILOA	34	73,5	20,5	5,8
OLABERRIA	345	48,4	34,4	17,1
ORDIZIA	2.570	61,8	26,5	11,6
ORMAIZTEGI	361	68,1	21,3	10,5
SEGURA	332	68,0	21,0	10,8
URRETXU	1.702	67,7	22,9	9,2
ZALDIBIA	380	65,5	24,7	9,7
ZEGAMA	289	70,5	20,4	8,9
ZERAIN	35	77,1	17,1	5,7
ZUMARRAGA	3.047	65,8	23,2	10,8
GOIERRI	18.178	64,9	24,3	10,7
GIPUZKOA	184.544	65,1	24,6	10,2

Datu-iturria: 1986ko Udal-Errolda. (Egileak landuak).

%26,8 (18.178 ikasle) ikaslea da. Gipuzkoan ere, eskolatzetasa antzerakoa da (%27,3). Adinari jarraiki, Goierriko eskolatzetasarik altuena 6-13 urte bitartean ematen da (%99,7), hain zuzen irakaskuntza derrigorrezkoa den garaian. Gipuzkoan, adin horretako eskolatzetasa %99,4 da. Adin-talde honetatik aurrera, eskolatzetasa jaisten doa taulan ikus daitekeen bezala. Bestalde, 18.178 ikasle horietatik (ikus 20. taula) %64,9 OHO egiten ari da (Gipuzkoan, %65,1), %24,3 LH edo BBB (Gipuzkoan, %24,6), eta %10,7 Goi-mailako ikasketatan (Gipuzkoan, %10,2) murgildua dago. Udalerri udalerri, eta udalerri txikietan gertatzen diren ohizko berezitasunak aparte utzirik, Olaberriako kasua da nabarmena, eskualdeak eskaintzen dizkigun batezbestekoetatik erabat aldentzen bait da: %48,4 OHOn eta %34,4 LH edo BBBn.

Azkenik, eta hezkuntzaren atal honi amaiera emateko, Goierriko unibertsitate-aurreko irakaskuntzaren izaera azalduko dugu (ikus 21. taula). 1986 eta 1987 urteetako datuen arabera, Goierriko ikasleen artean, %43,5 ikastetxe publikoetan (Gipuzkoan, %40,0), %33,3 ikastoletan (Gipuzkoan, %24,7), eta %23,1 ikastetxe pribatuetan (Gipuzkoan, %35,2) zeuden. Udalerri udalerri, bai ikastolak eta bai ikastetxe pribatuak hiriguneetan kokatuta daude soilik (Zumarragan zentru pri-

21. Taula. **Goierriko Unibertsitate-Aurreko Ikasleak Irakaskuntzaren Izaeraren Arabera (%): 1986-1987.**

UDALERRIAK	Guztira	Publikoa	Ikastola	Pribatua
ALTZAGA	0	0,0	0,0	0,0
ARAMA	0	0,0	0,0	0,0
ASTIGARRETA	—	—	—	—
ATAUN	230	100,0	0,0	0,0
BEASAIN	3.488	35,7	37,4	26,8
EZKIO-ITSASO	0	0,0	0,0	0,0
GABIRIA	22	100,0	0,0	0,0
GAINTZA	0	0,0	0,0	0,0
GUDUGARRETA	—	—	—	—
IDIAZABAL	294	100,0	0,0	0,0
ITSASONDO	61	100,0	0,0	0,0
LAZKAO	988	44,4	55,5	0,0
LEGAZPI	1.846	41,7	58,2	0,0
MUTILOA	0	0,0	0,0	0,0
OLABERRIA	52	100,0	0,0	0,0
ORDIZIA	2.973	34,8	29,2	35,8
ORMAIZTEGI	291	100,0	0,0	0,0
SEGURA	195	100,0	0,0	0,0
URRETXU	2.908	40,5	47,0	12,3
ZALDIBIA	210	100,0	0,0	0,0
ZEGAMA	170	100,0	0,0	0,0
ZERAIN	9	100,0	0,0	0,0
ZUMARRAGA	2.019	32,3	4,0	63,5
GOIERRI	15.756	43,5	33,3	23,1
GIPUZKOA	169.334	40,0	24,7	35,2

Datu-iturria: EUSTAT: *Irakaskuntzaren Estatistika: 86-87*, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 1988, 20-29. orr. (Egileak landuak).

batuek biltzen dituzte ikasleen %63,5). Beasain, Urretxu eta Ordizia dira, bestalde, unibertsitate-aurreko ikasle gehien dituztenak (Zumarragak bere ikasle kopuru handi bat Urretxuko ikastetxetara bidaltzen du). Herri txikietan, berriz, ikastetxe eza (Altzaga, Arama, Ezkio-Itsaso, Gaintza eta Mutiloa udalerrietan ez dago OHOkoko ikastetxerik) edota ikastetxe publikoen erabateko nagusitasuna azaltzen zaigu.

6. Biztanleriaren iharduera ekonomikoa

Herrialde batean, ekonomi garapena maila handiagoa lortzen doan neurrian, lehen sektoreak pisua gutxitu egiten du bigarrenaren mesedetan, eta geroago hirugarrenaren mesedetan.

Edozein industriaurreko gizartetan bezala, Goierrin ere XIX. mende-erdialdera, nekazaritza eta abelazkuntza ziren iharduera ekonomiko nagusiak. Industrialtzearen etorrerarekin, dena dela, nekazaritzak nagusitasun hori galdu egin zuen. Gertakizun hau, Gipuzkoan mende honen bigarren hamarkadan gertatu zen (ikus 22. taula), eta datu zehatzik ez dugun arren, Goierrin beranduxeago eman zelako ustea dugu (behar bada 20.eko hamarkadaren bukaera aldera).

Industriaren lehentasuna, 50.eko hamarkadatik aurrera gertatu zen garapen industrialaren ondorioz areagotu egin zen, batipat Goierrin. Honela, 1981ean, bigarren sektorean lan egiten zuen Goierriko biztanleria aktiboak %67,69 suposatzen zuen, eta Gipuzkoan, berriz, %50,28. Nekazaritzan, aldiz, %3,49 Goierrin, eta %4,54 Gipuzkoan, eta zerbitzuetan, azkenik, Goierrin %25,16 eta Gipuzkoan %40,03 (ikus 23. taula). Beraz, urte hauetan, berezitasun argi batzuek ditu eskualdeak: bigarren sektorearen nagusitasuna, zerbitzu eta eraikuntzaren garapen txikia, eta lehen sektorearen marjinalitatea.

Dena dela, azken urte hauetako krisi ekonomikoa dela eta, industriak bere pisua piska bat galdu egin du (ikus 23. taula). Gertakizun honek, Gipuzkoan zerbitzu sektorearen nagusitasuna ekarri digu jadanik, baina Goierrin, aurreko urteetan jasandako prozesu industrial sakonari esker, oraingoz, bere izakera industrialari eutsi egin dio, hirugarren sektorearen hedapena etengabea den arren. Beraz, gizarte aurreratuetan eman den tertziarizazio-prozesu horretan, Goierrin atzeratuta dabil (44).

22. Taula. Gipuzkoako Biztanleria Landuna Sektore Ekonomikoen Arabera (%): 1860-1920.

URTEA	Nekazaritza	Industria	Zerbitzuak
1860	54,4	22,6	23,0
1877	58,8	21,3	19,9
1887	53,2	28,3	18,5
1900	43,5	33,8	22,7
1910	38,4	35,9	25,7
1920	35,0	40,9	24,1

Datu-iturria: CASTELLS, L.; LUENGA, F.: «El proceso de industrialización de Guipúzcoa», *Ekonomiaz*, 9. zk. (1988), 267. orr. (Egileak landuak).

44. Ikus, LASA, E.: «Hirugarren sektoreko zerbitzu aurreratuak: Goierriko ekonomi garapenaren ardatz», in *Beasain Jaietan*, 1990, 20. orr.

23. Taula. **Goierriko eta Gipuzkoako Biztanleria Landuna Sektore Ekonomikoen Arabera (%): 1981-1986.**

	1981				1986			
	Nekazari.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzu.	Nekazari.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzu.
Goierri	3,49	67,69	3,65	25,16	3,11	59,22	4,10	33,71
Gipuzkoa	4,54	50,28	5,15	40,03	3,94	43,87	5,25	46,95

Datu-iturria: GURRUCHAGA, A.; PÉREZ-AGOTE, A.; UNCETA, A.: *Estructura y procesos sociales en el País Vasco*, 2. liburukia, EHU, Bilbo, 1990, 206 eta 255 orr.

Azkenik, beste datu sozioekonomiko batzuk aipatu nahi genituzke: alde batetik, krisi ekonomikoaren ondorioz, Goierri eta Gipuzkoan langabezia asko handitu dela. Eta bestetik, emakumeen partaidetza lan-merkatuan gehitu egin bada ere, langabezia emakume langileen artean ere nabarmenagoa dela (ikus 24. eta 25. taulak).

24 Taula. **Goierri eta Gipuzkoako Biztanleria Langabea. Langabezi-Tasak Sexuaren Arabera (%): 1981-1986.**

	1981			1986		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Goierri	14,90	11,52	27,39	21,27	17,03	33,05
Gipuzkoa	15,78	13,44	22,42	22,12	18,67	29,90

Datu-iturria: GURRUCHAGA, A.; PÉREZ-AGOTE, A.; UNCETA, A.: *Estructura y procesos sociales en el País Vasco*, 2. liburukia, EHU, Bilbo, 1990, 206 eta 255 orr.

25. Taula. **Goierri eta Gipuzkoako Biztanleria Aktiboa. Aktibitate-Tasak Sexuaren Arabera (%): 1981-1986.**

	1981			1986		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Goierri	36,70	56,58	15,96	38,65	55,94	20,79
Gipuzkoa	36,87	54,61	19,40	38,84	54,54	23,55

Datu-iturria: GURRUCHAGA, A.; PÉREZ-AGOTE, A.; UNCETA, A.: *Estructura y procesos sociales en el País Vasco*, 2. liburukia, EHU, Bilbo, 1990, 206 eta 254 orr.

BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA

Atal honetan 3 aldagai aztertuko ditugu (45): jaiotzak, hilkortasuna eta berezko hazkundera.

1. Jaiotzak

Mende honetako jaiotza-tasen bilakaera aztertuz gero (ikus 26 eta 27. taulak), zera da nabarmena: jaiotza-tasak izugarri jaitsi direla mende-hasieratik gaur egunerarte, bai Goierri eta baita Gipuzkoan ere. Goierri, 1910ean 29,8 zen jaiotza-tasa, 8,4ra jaitsi da 1986an. Jaitsiera honetan eraginik handiena izan duen faktorea pentsamoldea- eta bizimodu-aldaketa izan da, honek jaiotza-kontrolaren areagotzea ekarri bait du.

Mende honen hasieran, jaiotza-tasak nahiko altuak ziren, baina laster jaisten hasi ziren eta 30. hamarkadako krisi ekonomiko eta Gerra Zibilaren ondorioz, jaitsiera hau areagotu egin zen. Jaitsiera honek 50. hamarkadatik 75. urte ingururarte etenaldi bat izan zuen inmigrazio (jende multzo gaztea) eta oparotasun ekonomikoaren ondorioz («baby boom»). 70.eko hamarkadan, berriz, jaitsieraren abiadura areagotu egin zen, eta ondorioz, Gipuzkoako eta Goierriko egungo jaiotza-tasak Europako baxuenetarioak dira.

26. Taula. Goierriko Biztanleriaren Berezko Mugimendua.

URTEA	Hilkortasun-Tasa	Jaiotza-Tasa	Berezko Hazkundera
1910	17,5	29,8	12,2
1986	6,7	8,4	1,8

Datu-iturria: EUSTAT: *Udal-Adierazleak 1988*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1988, 1047.orr.

MUGICA, S.: *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Provincia de Guipúzcoa, d.g., 240-241. orr. (Egileak landuak).

45. Ikus, MORÁN ALÁEZ, E.: «La situación demográfica del País Vasco (1975-1986)», in *Populazioari Buruzko Biltzarra. II. Euskal Mundu Biltzarra*, Gazteiz, 1987, 219-236. orr., eta PICABEA, P.: «La población del País Vasco (1900-1930): evolución, factores de crecimiento y estructura social a principios de siglo», in *Eusko Ikaskuntza. Historia-Geografía*, 16. zk., (1990), 107-123. orr.

27. Taula. **Gipuzkoa eta Ordizia Udalerriko Biztanleriaren Berezko Mugimendua: 1900-1986.**

URTEA	Ordizia			Gipuzkoa		
	Hilkortasun-Tasa	Jaiotza-Tasa	Berezko Hazkundera	Hilkortasun-Tasa	Jaiotza-Tasa	Berezko Hazkundera
1901 - 10	18,17	31,53	13,36	19,52	31,20	11,68
1911 - 20	21,87	41,80	19,93	18,32	28,17	9,85
1921 - 30	13,23	29,13	15,90	15,40	26,49	11,90
1931 - 40	9,63	15,59	5,96	13,26	19,47	6,21
1941 - 50	9,54	21,66	12,12	11,09	20,03	8,94
1951 - 60	7,99	23,28	15,29	9,13	23,01	13,88
1961 - 70	6,84	18,77	11,93	7,53	23,53	16,00
1971 - 75	5,45	16,30	10,95	6,98	19,14	12,12
1976 - 80	6,22	15,54	9,32	5,75	14,57	8,82
1981 - 85	6,36	9,82	3,46	6,45	10,65	4,2
1986	6,9	7,7	0,8	7,2	9,3	2,1

Datu-iturria: EUSTAT: *Biztanleriaren Berezko Mugimendua: 1980-85*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 1990. (Egileak landuak).

EUSTAT: *Udal-Adierazleak: 1988*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 1988, 1047.orr.

GARMENDIA, J.: «Estudio Urbano de Villafranca de Ordizia», in *Lurraldea*, 5. zk. (1982), 94-97. orr.

GIPUZKOAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA eta ITSASKETA GANBARA OFIZIALA: *Gipuzkoar Ekonomia: 1990*, Donostia, 37. orr.

Jaiotza-tasen jaitsieraren bizkortze honek bi arrazoi izan ditu nagusiki: alde batetik, hiritartze azkarrak eta frankismoaren amaierak eragindako kultura eta ohitura-aldaketa zabala (antisorgailuen hedapena, adibidez); eta bestetik, krisialdi ekonomikoaren eragin samina.

2. Hilkortasuna

Jaiotza-tasak bezala, hilkortasun-tasak ere nabarmenki jaisten joan dira mende honen hasieratik gaur egunerarte, bai Goierri eta bai Gipuzkoan (ikus 26 eta 27. taulak). Goierri, 1910eko 17,5etik 1986ko 6,7ra jaisten da. Jaitsierarik garrantzitsuena XX. mendearen lehen erdialdean izan zen. Hilkortasun-tasen jaitsiera bultzatu duten faktoreen artean, aipatu: medikuntza-aurrerapenak, garbitasuna, elikadura eta kultura.

Bestalde, jaitsiera honen etenaldi bat azpimarratu nahi genuke. Hain zuzen, 1918ko gripeak eragindakoa, Ordizia udalerrriaren kasuan ikus daitekeen bezala (46). Gerra Zibilak ez zuen etenik sortu.

Azken urte hauetan, dena dela, biztanleriaren zahartzea dela eta, hilkortasun-tasek gorakada bat izan dute. Eta badirudi, etorkizunerako joera hori izango dela.

46. Urretxu udalerrian ere antzeko etendura gertatu zen, LINAZASORO, I.: *Villarreal de Urrechua, ayer y hoy*, Aurrezki Kutxa Municipal, 1970, 84-85. orr.

3. Berezko hazkundera

Biztanleriaren berezko hazkundera, jaiotzen eta heriotzen azterketak ematen digu. Beraz, bi aldagai horien baitan ibili ohi da; eta ondorioz, berezko hazkundera ere, mende honen hasieratik beheraka joan da (ikus 26 eta 27. taulak). Goierrin, 1910ean 12,2 zen tasa 1,8ra jaitsi da 1986an. Gaur egun, berezko hazkundera zerora hurbiltzen da, batipat jaiotza-tasek izan duten jaitsiera bortitzagatik. Dena dela, berezko hazkunderaren jaitsiera honek gorabehera handiak izan ditu.


MIGRAZIO-MUGIMENDUAK

Goierriko biztanleriaren hazkundera, eta batez ere azken 40 urte hauetan izandako hazkunde nabarmena, ulertezina da industrialitzeak eragindako migrazio-mugimenduak aztertu gabe.

Bai Goierri eta bai Gipuzkoan, industrialitze prozesua ez da XX. mendehasierarte finkatzen. Garai horretako industri garapenari esker, Gipuzkoa eta Goierri emigrazio-gune (Amerikara, Gaztelara) izatetik inmigrazio-gune izatera pasatzen dira. Ordurarte, goierritar gehienak bertakoak ziren, ia ez zegoen kanpotarrik (ikus 8. grafikoa).

Dena dela, XX. mendeko lehen hamarkada hauetan, Bizkaiarekin konparatuz gero Gipuzkoan ez zen inmigrante edo etorkin gehiegirik finkatu. Gipuzkoako burgeseria industrialia Bizkaiko oligarkiaren mailakoa ez zenez, Gipuzkoako enpresak txikiak edo tamaina ertainekoak ziren, eta kapital-multzo kaxkarrekoak. Ondorioz, Gipuzkoako langileria bertako eta inguruetako jendeak osatu zuen hein handi batetan. Behe-Goierriko industriguneetan kokatu zen enpresa nagusienaren

8. Grafikoa: Goierriko biztanleriaren jatorria. 1887-1986



Datu-iturria: 1887ko Biztanle-Zentsua eta 1986ko Udal-Errolda (Egileak landuak)

berezitasunak bestelakoak ziren arren (47), Beasain eta Ordizian finkatu zen etorkin-kopurua (ikus 28. taula), beste gipuzkoar udalerrri industrialdu batzuen antzekoa izan zen (48).

Berrogeitamargarren hamarkadaren hasieran, garapen industrialarekin batera, inmigrazio-mugimendu jendetsu eta berria garatu zen Gipuzkoan eta Goierriin. Eta etorkinak, batez ere industriguneetan kokatu ziren. 29. taulan ikus daitekeenez, inmigrazio-mugimendu hauek garai horretako biztanleriaren hazkundera funtsezko garrantzia izan zuten, berezko hazkundera baino garrantzitsuagoak izan bait ziren. Inmigrazio mugimendu hauek, bestalde, Goierri Garaiko industriguneetan Goierri Beheko industriguneetan baino eragin handiagoa izan zuten. Ondorioz, Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko udalerriek besteek baino hazkunde handiagoa izan zuten. Nabarmentzekoa, bestalde, Olaberriak inmigrazio horiek direla eta, izan zuen hazkundera (5 urtetan ia %90).

28. Taula. Ordizia (1910) eta Beasain (1940) Udalerrietako Biztanleriaren Jatorria.

URTEA	Udalerria	Goierri	Gipuzkoa	Gainontzeko Euskal Herria	Espainia	Atzerria
1910	42,1	20,7	13,0	12,2	10,2	1,8
1940	—	—	77,7	8,1	13,7	0,3

Datu-iturria: GARMENDIA LARREA, J.: «Estudio urbano de Ordizia», *Lurralde*, 5. zk. (1982), 198. orr. (Egileak landuak).

AZURMENDI, J. M.: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*, Donostiako Aurrezki-Kutxa, Donostia, 1970, 29-30. orr. (Egileak landuak).

29. Taula. Goierriko Industriguneetako Hazkunde Erreal, Berezko Hazkundera, eta Migrazio Saldoa: 1951-1960.

UDALERRIAK	Biztanleria			1951 - 60		
	1950	1955	1960	Hazkunde Erreal	Berezko Hazkundera	Migrazio-Saldoa
Zumarraga	3.490	4.204	6.897	3.407	780	2.627
Urretxu	2.804	3.538	4.877	2.073	669	1.404
Legazpi	4.010	4.885	6.343	2.333	793	1.540
Beasain	5.423	5.767	7.610	2.187	1.184	1.003
Ordizia	4.796	5.704	6.800	2.004	881	1.123
Lazkao	1.817	2.132	2.960	1.143	317	826
Olaberria	497	533	.999	502	65	437
GUZTIRA	22.837	26.763	36.486	13.649	4.689	8.960

Datu-iturria: COPIGRAF: *Información urbanística de Guipúzca*, 2. liburukia, Madril, 1962, 62. orr. (Egileak landuak).

Berrogeitamargarren hamarkadako etorkin hauen jatorriari buruz esan behar, Euskal Herriko inmigrazioak industrialtzearen hasierako garrantzia galdu egiten


47. LÓPEZ GONZÁLEZ, M. A., op. cit., 1109 eta 1123-1124. orr.

48. CASTELLS, L., op. cit., 185-186. orr.

duela, Espainiakoaren mesedetan. 60.eko hamarkadako Goierriko industriguneetako biztanleriaren jatorria aztertzen badugu (ikus 15. irudia eta 30. taula), %65 inguru Gipuzkoan jaiotak dira; eta gainerakoak, beste euskal herrialdeetatik (%11), eta Estatu Espainiarretik (%23) etorriak dira. Espainiako etorkinen artean, gaztelarrak eta leondarrak dira nagusi kopuruz, eta estremadurarrak hurrena, eta neurri txikiagoan galizar, errioxar eta andalusiarrak. Probintziaz probintzia, etorkinen jatorria honako hau da (ikus 9. grafikoa): Nafarroa (%19,54), Burgos (%12,40), Araba (%8,06), Zamora (%6,01), Valladolid (%6,00), Palencia (%5,96), Caceres (%5,85), Bizkaia (%4,39), Errioxa (%4,38), Ourense (%3,72), Badajoz (%2,59), e.a. Goierriko etorkinen jatorria Gipuzkoako beste industriguneetakoena parekoa da.

Hirurogeitamargarren hamarkadan hasten den krisialdi ekonomikoak, pixkanaka-pixkanaka etorkinen etorrera jendetsuari garrantzia kentzen dio, berau zifra minimoetara jaitsi arazteraino. Azken urte hauetan, Gipuzkoatik eta Goierritik kanporatzen direnak etorkinak baino nabarmenki ugariagoak dira. Honela, joan den mende-bukaeran bezala, berriro ere saldo negatiboak nagusitzen dira migrazio-mugimenduetan (49). Beraz, egun, emigrazioa da nagusi mugimendu migratzaileen artean. Emigrazio hau bi eratakoa da (50): alde batetik, jatorrizko herrira itzultzen den jendea, eta bestetik, Estatu Espainiarreko barne eta mediterraneo aldeko hiriburu haundietarantz doana.

15. Irudia: Goierriko industriaguneetako biztanleria inmigrantea jatorriaren arabera: 1960 (%)



Datu-iturria: Información urbanística de Gipuzcoa, 2.liburukia, Madril, 1962, 64-86.orr. (Egileak landua)


49. EUSTAT: *Euskal Urtekari Estadistikoa*, op. cit., 67. orr.

50. CAÑAMERO, A.: «Los movimientos migratorios en el País Vasco en el período 1975-1985», in *Lurralde*, 13.zk (1990), 261-276. orr.

30. Taula. Goierriko Industri gueneen Biztanleria Jatorriaren Arabera: 1960.

UDALERRIAK	Industri guneak	Beasain	Ordizia	Lazkao	Olaberria	Zumarraga	Urritxu	Legazpi
GUZTIRA	36.486	7.610	6.800	2.960	999	6.897	4.877	6.343
HEGO-E.H.	27.955	5.909	5.279	2.254	750	4.734	3.488	5.541
GIPUZKOA	23.939	5.242	4.790	2.052	621	3.937	2.895	4.402
ARABA	1.012	161	80	38	3	190	126	414
BIZKAIA	552	95	89	29	12	124	107	96
NAFARROA	2.452	411	320	135	114	483	360	629
ESTATUKO BESTE ZENBAIT LURRALDE								
ASTURIAS	96	20	11	1	—	32	23	9
KANTABRIA	193	39	33	5	18	28	35	35
GALIZIA	751	143	171	126	35	125	113	38
A Coruña	42	9	6	1	—	10	11	5
Lugo	165	24	64	36	6	21	11	3
Ourense	467	94	79	72	27	85	81	29
Pontevedra	77	16	22	17	2	9	10	1
GAZTELA-LEON	4.638	891	771	328	85	1.318	769	476
Avila	145	23	12	15	1	63	25	6
Burgos	1.383	284	183	71	23	278	187	357
Leon	109	30	18	8	2	34	15	2
Palentzia	748	120	259	60	15	130	122	42
Salamanca	283	49	36	25	13	97	57	6
Segovia	250	38	18	10	1	145	36	2
Soria	211	26	32	8	3	77	36	29
Valladolid	754	268	179	62	20	127	88	10
Zamora	755	53	34	69	7	367	203	22
ERRIOXA	550	121	105	28	18	143	93	42
MADRIL	127	32	19	20	4	49	15	15
GAZTELA-MANTXA	222	59	38	22	—	27	27	27
Albazete	50	11	7	14	—	10	8	—
Ciudad-Real	65	19	21	—	—	8	7	10

9. Grafikoa: Goierriko industriguneeen biztanleria. Etorkinen jatorria (%). 1960



Datu-iturria: COPIGRAF: Información Urbanística de Gipúzcoa, 2. liburukia, Madril, 1962, 64-86. orr. (Egileak landua)

Bestalde, bukatzeko, aipatu Goierriko eskualdean 1965az geroztik herrialde barneko mugimendu migratzaileen areagotzea gertatzen dela (51), justu nekazal exodoa areagotzen den une berean. Gertakizun hau, industrigune diren eta hiritar garapen sendoa izan duten zonaldeetan ohizkoa, eta desoreka sortzailea da.

51. GURRUCHAGA, A.; PÉREZ AGOTE, A.; UNCETA, A., op. cit., 177. orr.

ONDORIOAK

Ikerlan honetan, Goierriko biztanleriak azken 125 urteotan jasandako aldaketa demografikoak azaltzen ahalegindu gara. Aldaketarik handienak, dudarik gabe, industriguneetan gertatu dira, eta gainera, gunek eskualdeko garapenaren ardatz bilakaturik, Goierri osoaren norabidea baldintzatu dute.

Aldaketa hauek kontuan hartuz, Goierriar biztanleriaren bilakaera hiru unetan bana daiteke: lehenengo fasea, industrialtze-hasieratik mende honen erdialderartekoa da. Garai honetan, Goierriin, industrializazioa finkatuta gelditu zen, baina, oraindik honek eragindako aldaketa demografikoak ez ziren oso sakonak izan. Une honetako berezitasunik nabarmenenak hauek izan litezke: biztanleriaren hazkunde apala, emigraziogunetik inmigraziogunerako aldaketa, oraindik garrantzi handirik ez duen nekazal exodoa (ondorioz, garai horretan, eskualdean biztanleriaren banaketa nahiko orekatua da), eta industri sektorearen nolabaiteko nagusitasuna nekazal sektorearen kaltetan.

Bigarren fasea, 50. hamarkadatik aurrera hasi zen Goierriko eskualdean, 2. Industri Iraultza hasi eta ikaragarritzko hazkunde demografikoa ematen denean, eta 1970-75. urterarte luzatu zen. Bigarren une honetan eman ziren aldaketa demografikorik sakonenak: inmigrazio jendetsua industriguneetara, jaiotza-tasen gorakada, biztanleria gaztetzea, hiritartzea, eta industriguneen erabateko lehen-tasuna nekazalguneekiko. Aldaketa demografiko hauek industriguneetan eta beraien inguru hurbileko udalerrietan eman ziren batipat. Nekazalguneetan, berriz, alderantzizko bilakaera gertatu zen: 60. eta 70. hamarkadetan, nekazalgune haue-tan nekazal exodoa areagotu zen, biztanleriaren zahartzea eta despoulakuntza ekarri. Ondorioz, eskualdeko biztanleriaren banaketan erabateko desoreka sortu zen.

Hirugarren fasea 70. hamarkadan hasi zen, krisialdi ekonomiko latz batean murgilduta eman zen pentsamolde- eta ohitura-aldaketak eraginda. Egun, oraindik fase honen barnean aurkitzen garela esan behar. Krisi ekonomiko hau gogorra izan da Goierriin, bertako industriaren metal sektorearekiko polarizazioa dela eta. Etapa honetako berezitasunik aipagarrienak ondorengo hauek lirateke: Goierriko eskualdea biztanleria galtzen hastea, migrazio-saldoen negatibotasuna, jaiotza-tasen jaitsiera bortitzak ekarri duen biztanleriaren zahartzea, eta, maila apal batean bada ere, biztanleriaren bilketa-maila gutxitzeko joera nabaria. Azkenik, azpimarratu beste datu bat: Gipuzkoan, lurralde aurreratuetan bezala, fase honetan

zerbitzu-sektorearen nagusitasuna eman den arren, Goierrin oraindik ez dela horrelakorik gertatu (52).

Dena dela, aldaketak ez dira biztanleriaren bilakaera eta banaketan bakarrik gertatu. Biztanleriaren egituraren ere, azken 125 urteotan eskualdeak aldaketa nabarmenak izan ditu. Hauetako garrantzitsuenak: aipaturiko baserriaren kopuruaren jaitsiera eta langileriaren igoera (oraindino zerbitzu-sektorearen nagusitasuna ez da eman), biztanleriaren etengabeko zahartzea eta etorkin-multzo arrotza; eta baita beste hauek ere: irakaskuntza-mailaren gorakada eta bereziki eskualdeak jasandako deseuskalduntze bortitza.

Beraz, gaur egun, Goierri eskualdea demografikoki egoera kaxkarrean azaltzen zaigu, eta industria krisian dagoenez, eta industri eskualdea izanik, ez da aterabiderik ikusten. Goierriko biztanleriaren hazkundera garapen industrialak ekarri zuen, eta egun, eskualdea, hiritartua eta industrializatua den aldetik, gogor ari da krisia jasaten.

Dena dela, Industri Iraultza ondoren sortu zen gizarte industrialean, biztanleriaren bilakaera eta banaketan, industria faktore erabakiorra edo ezinbestekoa izan baldin bada, jadanik murgildurik gauden gizarte postindustrialean, badirudi biztanleriaren bilakaera eta banaketa ez daudela erabat industriaren kokapenarekin lotuta.

Gizarte postindustrialak, bere berezitasunak direla eta (zerbitzu sektoreen nagusitasuna, aisialdiaren hedapena, natur zaletasuna, deskongestioa, bizitzakalitatearen garrantzia, nekazal-turismoa, e.a.), aurreko gizarte industrialaren desorekak eta gehiegizko bilketak konpontzeko gai den sakabanatuagoa eta orekatuagoa den biztanleriaren hazkunde eta banaketa berri bat eskaintzen digu. Industriaren kokapenak erabat mugatzen ez duen banaketa-joera berri bat. Beraz, badirudi etorkizunean industriaren kokapena ez dela demografikoki hain erabakiorra izango.

Eta egoera berri honek eskualdean honez gero izan du eragina, bertan biztanleriaren kontzentrazio-maila gutxitzeko joera nabaria bait da. Honela, 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek biltzen duten biztanleriaren hainbatekoak, neurri txikian bada ere, gora egin du azken urte hauetan: 1975ean %15,1, 1986an %16,8 eta 1991ean (behin-behineko datuak) %19,1.

Dena dela, Goierri eskualdearen bilakaeran funtsezko azpiegiturak izango dira, hauen nondik-norakoek eskualdearen norabidea erabat muga bait dezakete. Momentu honetan kinka larrian dagoen gaia, bestalde.

Goierri eskualdeko bilakaera demografiko eta ekonomikoan, eragin duen faktorerik garrantzizkoenetakoa, funtsezko komunikazio-gune izatea izan da. Bere kokapen geografiko bereziak, komunikabideen alorrean leku garrantzitsua eman dio Goierriari. Euskal Herriaren bihotz-bihotzean (Donostia, Iruñea, Bilbo eta Gasteizko bideen gurutzegunea) finkaturik egoteak, nola iragan denboran hala gaur egun, zerikusi handia izan du eskualdearen dinamikan. Gogora dezagun, zer-nolako garrantzia duten ekonomian, urruntasun- eta komunikazio-arloek. Goierri, bide-sarea eta trenbidea bitarteko direlarik, Euskal Herri osoarekin eta Frantzia eta Espainiako Estatuarekin lotu izan da. Besteak beste, N-1a eta Madril-Irun trenbidea bitarteko. Beraz, ez dago esan beharrik zer-nolako garrantzia izan

52. Etorkizunari buruzko aurrikuspenak honako lan honetan ikus daitezke, ASKOREN ARTEAN: *Escenarios demográficos. Horizonte 2016*, Eusko Jaurlaritza, 1990.

dezakeen etorkizunean funtsezko potentzialitate honek. Azpiegiturak ezinbestekoak dira, beraz.

Ondorioz, eta eskualdea eremu marjinal bihur ez dadin, eskualdearen garapenerako, errepide- eta trenbide-zerbitzuaren azpiegitura gaurkotzea eta hobetzea funtsezkoa da. Hau honela, Bilbo eta Donostia lotu behar dituen Abiadura Handiko Trenarekiko lotura, eta batipat, lehen mailako ardatz bihurtu den Beasain-Durango Errepidea (GI-632), eta eskualdearen oinarrizko egituraren ardatza den N-1ren bikoizketaren azken zatia (Etxegarate) lehenbailehen aurrera eramateak ezinbestekoa dirudi.

**ERANSKIN
ESTATISTIKOA**

31. Taula. Gipuzkoako Eskualdeen Gertatzeko Biztanleriaren Bilakaera: 1860-1991. Abiaburua = 1860.

ESKUALDEAK	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991 (53)
BIDASOA BEHEA	100	120,71	149,91	160,04	194,15	221,49	267,74	228,58	306,67	431,01	623,38	697,04	726,54	759,97	758,12
DEBA BEHEA	100	102,03	110,32	124,35	151,67	168,09	180,80	185,51	222,09	356,41	419,37	433,01	419,79	392,99	373,91
DEBA GARAIA	100	98,07	105,00	100,43	107,29	116,26	130,88	135,75	150,76	189,30	257,67	278,40	279,98	275,49	267,92
GOERRI	100	101,99	98,62	95,76	105,40	113,85	127,92	135,62	151,26	215,70	277,85	291,24	285,98	278,55	267,27
DONOSTIALDEA	100	115,82	141,97	171,19	212,17	261,51	329,93	400,79	441,88	548,59	760,13	837,99	858,98	852,01	836,54
TOLOSALDEA	100	87,44	84,64	87,05	93,79	101,55	107,70	113,37	124,83	134,88	156,85	162,73	165,53	162,18	158,50
UROLA KOSTALDEA	100	100,39	104,29	108,80	118,50	127,15	141,63	146,40	161,50	181,17	219,46	235,68	244,61	246,53	248,19
GIPUZKOA	100	102,86	111,87	120,48	139,45	159,06	185,99	204,09	230,11	294,27	388,19	419,88	426,32	421,93	413,27

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landua).

32. Taula. Gipuzkoako Eskualdeen Hazkunde-Tasaren Bilakaera: 1860-1991.

ESKUALDEAK	1860-77	1877-87	1887-00	1900-10	1910-20	1920-30	1930-40	1940-50	1950-60	1960-70	1970-75	1975-81	1981-86	1986-91 (54)
BIDASOA BEHEA	1,11	2,18	0,50	1,95	1,32	1,91	-1,56	2,98	3,46	3,75	2,25	0,69	0,90	-0,04
DEBA BEHEA	0,11	0,78	0,92	2,00	1,03	0,73	0,25	1,81	4,84	1,64	0,64	-0,51	-1,31	-0,99
DEBA GARAIA	-0,11	0,68	-0,34	0,66	0,80	1,19	0,36	1,05	2,30	3,13	1,56	0,09	-0,32	-0,55
GOERRI	0,11	-0,33	-0,22	0,96	0,77	1,17	0,58	1,09	3,61	2,56	0,94	-0,30	-0,52	-0,82
DONOSTIALDEA	0,86	2,05	1,45	2,16	2,11	2,35	1,96	0,98	2,18	3,31	1,96	0,41	-0,16	-0,36
TOLOSALDEA	-0,78	-0,32	0,21	0,74	0,79	0,58	0,51	0,96	0,77	1,52	0,73	0,28	-0,40	-0,45
UROLA KOSTALDEA	0,02	0,38	0,32	0,85	0,70	1,08	0,33	0,98	1,15	1,93	1,43	0,62	0,15	0,13
GIPUZKOA	0,16	0,84	0,57	1,47	1,32	1,57	0,93	1,20	2,49	2,80	1,58	0,25	-0,20	-0,41

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landua).

53. Behin-behineko emaitzak dira.

54. Behin-behineko emaitzak dira.

33. Taula. Gipuzkoako Eskualdeen Dentsitate-Tasaren Bilakaera: 1860-1991.

ESKUALDEAK	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991 (55)
BIDASOA BEHEA	124,41	150,18	186,50	199,12	241,55	275,57	333,11	284,38	381,55	536,24	775,57	867,22	903,92	945,51	943,21
DEBA BEHEA	85,95	87,70	94,82	106,88	130,36	144,48	155,40	159,45	190,89	306,35	360,47	372,19	360,82	337,79	321,39
DEBA GARAIA	68,67	67,35	72,11	68,97	73,68	79,84	89,88	93,22	103,53	130,00	176,95	191,19	192,28	189,19	183,99
GOIERRI	69,12	70,50	68,17	66,19	72,85	78,70	88,42	93,75	104,55	149,10	192,06	201,31	197,68	192,54	184,74
DONOSTIALDEA	122,04	141,35	173,27	208,94	258,96	319,17	402,68	489,16	539,31	669,54	927,72	1.022,75	1.048,37	1.039,87	1.020,99
TOLOSALDEA	84,49	73,88	71,51	73,55	79,25	85,80	91,00	95,79	105,47	113,97	132,53	137,50	139,86	137,04	133,92
UROLA KOSTALDEA	75,52	75,82	78,76	82,17	89,49	96,02	106,96	110,57	121,97	136,83	165,74	177,99	184,74	186,19	187,44
GIPUZKOA	81,39	83,72	91,05	98,07	113,51	129,47	151,39	166,12	187,30	239,52	315,97	341,77	347,01	343,43	336,39

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landua).

34. Taula. Gipuzkoako Eskualdeen Zentsu-Arteko Hazkundera (%): 1860-1991.

ESKUALDEAK	1860-77	1877-87	1887-00	1900-10	1910-20	1920-30	1930-40	1940-50	1950-60	1960-70	1970-75	1975-81	1981-86	1986-91 (56)
BIDASOA BEHEA	20,71	24,18	6,76	21,30	14,08	20,88	-14,62	34,16	40,54	44,63	11,81	4,23	4,60	-0,24
DEBA BEHEA	2,03	8,12	12,71	21,96	10,82	7,55	2,60	19,71	60,47	17,66	3,25	-3,05	-6,38	-4,85
DEBA GARAIA	-1,92	7,06	-4,35	6,82	8,35	12,57	3,71	11,05	25,56	36,11	8,04	0,56	-1,60	-2,74
GOIERRI	1,99	-3,31	-2,89	10,06	8,02	12,35	6,02	11,52	42,60	28,80	4,81	-1,80	-2,59	-4,05
DONOSTIALDEA	15,82	22,57	20,58	23,93	23,25	26,16	21,47	10,25	24,14	38,56	10,24	2,50	-0,81	-1,81
TOLOSALDEA	-12,55	-3,21	2,84	7,74	8,27	6,05	5,26	10,10	8,05	16,28	3,75	1,71	-2,01	-2,27
UROLA KOSTALDEA	0,39	3,87	4,32	8,91	7,29	11,39	3,36	10,31	12,18	21,13	7,38	3,79	0,78	0,67
GIPUZKOA	2,86	8,75	7,70	15,74	14,06	16,92	9,73	12,74	27,88	31,91	8,16	1,53	-1,03	-2,05

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landua).

55. Behin-behineko emaitzak dira.

56. Behin-behineko emaitzak dira.

35. Taula. Goierriko Udalerriren Gertatzeko Biztanleriaren Bilakaera: 1860-1991. Abiaturua = 1860.

UDALERRIAK	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991 (57)
ALTZAGA	100	94,49	95,41	81,65	83,48	88,07	94,95	93,57	105,50	113,76	—	—	—	—	40,82
ARAMA	100	115,53	119,41	120,38	109,70	132,03	142,71	150,48	139,80	199,02	200,00	187,37	169,90	159,22	133,98
ASTIGARRETA	100	90,31	80,00	70,31	79,68	60,31	—	—	—	—	—	—	—	—	—
ATAUN	100	96,57	91,67	91,22	91,05	88,42	83,79	83,86	86,84	98,80	79,03	72,59	67,11	62,41	57,93
BEASAIN	100	148,06	140,19	133,42	205,31	260,70	363,25	344,33	374,51	525,55	697,16	754,48	836,46	862,98	834,25
EZKIO-ITSASO	100	93,68	83,00	80,13	76,80	71,23	52,98	54,93	53,61	60,33	43,85	36,16	33,46	33,46	30,42
GABRIA	100	92,45	86,03	77,83	78,58	83,24	80,44	73,74	78,02	61,91	60,05	47,39	45,81	43,76	39,85
GAINZA	100	91,88	81,74	79,10	73,83	67,74	62,67	72,21	62,67	55,78	43,20	35,09	25,15	24,74	23,32
GUDUGARRETA	100	92,30	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	100	93,32	90,20	84,00	84,06	84,41	78,27	68,24	101,06	121,31	117,76	119,06	121,84	120,36	116,52
ITSASONDO	100	92,29	88,12	84,26	91,33	100,00	117,81	116,69	125,36	145,74	176,40	157,78	133,54	120,70	102,40
LAZKAO	100	98,87	93,54	88,58	110,00	122,91	148,55	155,00	169,97	276,89	394,20	470,06	476,98	483,34	472,96
LEGAZPI	100	98,71	99,24	94,39	97,95	104,69	143,78	209,31	303,78	480,53	736,06	768,40	799,84	735,07	705,90
MUTILOA	100	108,60	107,83	100,19	111,47	92,16	82,60	84,51	79,34	72,84	56,78	48,18	44,55	34,99	34,41
OLABERRIA	100	104,07	97,85	104,29	111,80	121,03	113,51	98,06	106,65	214,37	327,89	331,97	306,86	270,60	231,54
ORDIZIA	100	123,72	113,95	118,71	193,65	255,55	369,50	362,15	400,66	568,08	783,62	862,74	795,73	772,93	749,45
ORMALZTEGI	100	85,59	86,70	88,50	87,67	87,39	94,73	99,16	106,23	139,05	164,68	158,58	172,57	178,11	165,78
SEGURA	100	100,58	101,63	83,47	88,63	87,78	84,45	84,91	82,75	114,17	106,59	100,91	92,55	90,13	85,49
URRETXU	100	102,42	108,79	112,23	116,38	152,67	174,62	221,13	283,51	493,12	614,45	694,13	650,15	641,05	609,10
ZALDIBIA	100	100,24	100,08	98,77	103,36	115,81	118,93	132,95	130,65	157,37	162,95	152,78	145,57	139,01	123,68
ZEGAMA	100	88,17	84,51	82,62	80,69	75,19	72,49	75,67	74,66	82,14	70,44	65,25	61,92	58,74	51,06
ZERAIN	100	102,44	104,02	96,50	97,90	90,20	79,02	85,48	71,15	62,76	57,34	43,00	41,95	40,38	39,68
ZUMARRAGA	100	124,62	134,02	146,01	139,41	149,74	178,03	230,43	250,53	495,11	850,96	889,44	819,31	792,60	782,05
GOJERRI	100	101,99	98,62	95,76	105,40	113,85	127,92	135,62	151,26	215,70	277,85	291,24	285,98	278,55	267,27
GIPUZKOA	100	102,86	111,87	120,48	139,45	159,06	185,99	204,09	230,11	294,27	388,19	419,88	426,32	421,93	413,27

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landua).

57. Behin-behineko emaitzak dira.

36. Taula. Goierriko Udalerrien Dentsitate-Tasaren Bilakaera: 1860-1991.

UDALERRIAK	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991 (58)
ALTZAGA	145,33	137,33	138,66	118,66	121,33	128,00	138,00	136,00	153,33	165,33	—	—	—	—	59,33
ARAMA	79,23	91,53	94,61	95,38	86,92	104,61	113,07	119,23	110,76	157,69	158,46	148,46	134,61	126,15	106,15
ASTIGARRETA	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
ATAUN	49,47	47,77	45,35	45,13	45,05	43,74	41,45	41,49	42,96	48,88	39,10	35,91	33,20	30,88	28,66
BEASAIN	48,26	71,46	67,66	64,40	99,10	125,83	175,33	166,20	180,76	253,66	336,50	364,16	403,73	416,53	402,66
EZKIO-ITSASO	81,78	76,61	67,88	65,53	62,81	58,26	43,33	44,92	43,84	49,34	35,86	29,57	27,37	27,37	24,88
GABIRIA	72,08	66,64	62,01	56,10	56,64	60,00	57,98	53,15	56,24	44,63	43,28	34,16	33,02	31,54	28,72
GAINTZA	83,55	76,77	68,30	66,10	61,69	56,61	52,37	60,33	52,37	46,61	36,10	29,32	21,01	20,67	19,49
GUDUGARRETA	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	57,42	53,59	51,79	48,23	48,27	48,47	44,94	39,18	58,03	69,66	67,62	68,37	69,96	69,11	66,91
ITSASONDO	62,92	58,08	55,45	53,03	57,47	62,92	74,14	73,43	78,88	91,71	111,01	99,29	84,04	75,95	64,44
LAZKAO	93,77	92,71	87,71	83,07	103,15	115,26	139,29	145,35	159,38	259,64	369,64	440,78	447,28	453,24	443,50
LEGAZPI	31,27	30,87	31,04	29,52	30,63	32,74	44,97	65,47	95,02	150,30	230,23	240,35	250,18	229,92	220,80
MUTILOA	59,43	64,54	64,09	59,54	66,25	54,77	49,09	50,22	47,15	43,29	33,75	28,63	26,47	20,79	20,45
OLABERRIA	66,57	69,28	65,14	69,42	74,42	80,57	75,57	65,28	71,00	142,71	218,28	221,00	204,28	180,14	154,14
ORDIZIA	210,00	259,82	239,29	249,29	406,66	536,66	775,96	760,52	841,40	1.192,98	1.645,61	1.811,75	1.671,05	1.623,15	1.573,85
ORMAIZTEGI	104,63	89,56	90,72	92,60	91,73	91,44	99,13	103,76	111,15	145,50	172,31	165,94	180,57	186,37	173,47
SEGURA	166,41	167,39	169,13	138,91	147,50	146,08	140,54	141,30	137,71	190,00	177,39	167,93	154,02	150,00	142,28
URRETXU	125,18	128,22	136,20	140,50	145,69	191,13	218,60	276,83	354,93	617,34	769,24	868,98	813,92	802,53	762,53
ZALDIBIA	75,30	75,49	75,37	74,38	77,83	87,22	89,56	100,12	98,39	118,51	122,71	115,06	109,62	104,69	93,14
ZEGAMA	71,05	62,65	60,05	58,71	57,34	53,42	51,51	53,77	53,05	58,37	50,05	46,37	44,00	41,74	36,28
ZERAIN	54,47	55,80	56,66	52,57	53,33	49,14	43,04	46,57	38,76	34,19	31,23	23,42	22,85	22,00	21,61
ZUMARRAGA	84,42	105,21	113,15	123,27	117,69	126,42	150,30	194,54	211,51	418,00	718,42	750,90	691,69	669,15	660,24
GOIERRI	69,12	70,50	68,17	66,19	72,85	78,70	88,42	93,75	104,55	149,10	192,06	201,31	197,68	192,54	184,74
GIPUZKOA	81,39	83,72	91,05	98,07	113,51	129,47	151,39	166,12	187,30	239,52	315,97	341,77	347,01	343,43	336,39

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egiteak landua).

58. Behin-behineko emaitzak dira.

37. Taula. **Goierriko Udalerrien Hazkunde-Tasaren Bilakaera: 1860-1991.**

UDALERRIAK	1860-77	1877-87	1887-00	1900-10	1910-20	1920-30	1930-40	1940-50	1950-60	1960-70	1970-75	1975-81	1981-86	1986-91 (59)
ALTZAGA	-0,33	0,09	-1,19	0,22	0,53	0,75	-0,14	1,20	0,75	—	—	—	—	-1,50
ARAMA	0,85	0,33	0,06	-0,92	1,86	0,78	0,53	-0,73	3,59	0,04	-1,29	-1,61	-1,28	-3,39
ASTIGARRETA	-0,59	-1,20	-0,98	1,25	-2,74	—	—	—	—	—	—	—	—	—
ATAUN	-0,20	-0,51	-0,03	-0,01	-0,29	-0,53	0,008	0,34	1,29	-2,20	-1,68	-1,29	-1,43	-1,48
BEASAIN	2,33	-0,54	-0,37	4,40	2,41	3,37	-0,53	0,84	3,44	2,86	1,59	1,73	0,62	-0,67
EZKIO-ITSASO	-0,38	-1,20	-0,27	-0,42	-0,74	-2,91	0,36	-0,24	1,18	-3,13	-3,78	-1,28	0,00	-1,88
GABIRIA	-0,46	-0,71	-0,76	0,09	0,57	-0,34	-0,86	0,56	-2,28	-0,30	-4,62	-0,56	-0,91	-1,85
GAINZA	-0,49	-1,16	-0,25	-0,68	-0,85	-0,77	1,42	-1,40	-1,15	-2,52	-4,07	-5,39	-0,32	-1,17
GUDUGARRETA	-0,46	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	-0,40	-0,34	-0,54	0,07	0,04	-0,75	-1,36	4,00	1,84	-0,29	0,21	0,38	-0,24	-0,64
ITSASONDO	-0,47	-0,46	-0,34	0,80	0,91	1,65	-0,09	0,71	1,51	1,92	-2,20	-2,74	-2,00	-3,23
LAZKAO	-0,06	-0,55	-0,41	2,18	1,11	1,91	0,42	0,92	5,00	3,59	3,58	0,24	0,26	-0,43
LEGAZPI	-0,07	0,05	-0,38	0,37	0,66	3,22	3,82	3,79	4,69	4,35	0,86	0,67	-1,67	-0,80
MUTILOA	0,48	0,07	-0,56	1,07	-1,88	-1,08	0,22	-0,62	-0,85	-2,45	-3,23	-1,29	-4,71	-0,33
OLABERRIA	0,23	-0,61	0,49	0,69	0,79	-0,63	-1,45	0,84	7,23	4,34	0,24	-1,30	-2,48	-3,06
ORDIZIA	1,26	-0,81	0,31	5,01	2,81	3,75	-0,20	1,01	3,55	3,26	1,94	-1,33	-0,57	-0,61
ORMAIZTEGI	-0,91	0,12	0,15	-0,09	-0,03	0,80	0,45	0,69	2,72	1,70	-0,75	1,41	0,63	-1,42
SEGURA	0,03	0,10	-1,50	0,60	-0,09	-0,38	0,05	-0,25	3,27	-0,68	-1,08	-1,43	-0,52	-1,05
URRETXU	0,14	0,60	0,23	0,36	2,75	1,35	2,38	2,51	5,69	2,22	2,46	-1,08	-0,28	-1,01
ZALDIBIA	0,01	-0,01	-0,10	0,45	1,14	0,26	1,12	-0,17	1,87	0,34	-1,27	-0,80	-0,91	-2,30
ZEGAMA	-0,73	-0,42	-0,17	-0,23	-0,70	-0,36	0,42	-0,13	0,95	-1,52	-1,51	-0,87	-1,04	-2,76
ZERAIN	0,14	0,15	-0,57	0,14	-0,81	-1,31	0,78	-1,81	-1,24	-0,89	-5,59	-0,41	-0,76	-0,34
ZUMARRAGA	1,30	0,73	0,66	-0,46	0,71	1,74	2,61	0,83	7,04	5,56	0,88	-1,35	-0,66	-0,26
GOIERRI	0,11	-0,33	-0,22	0,96	0,77	1,17	0,58	1,09	3,61	2,56	0,94	-0,30	-0,52	-0,82
GIPUZKOA	0,16	0,84	0,57	1,47	1,32	1,57	0,93	1,20	2,49	2,80	1,58	0,25	-0,20	-0,41

Datu-iturria: *Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak.* (Egileak landua).

59. Behin-behineko emaitzak dira.

38. Taula. Goierriko Udalerrien Zentsu-Arteko Hazkundera (%): 1860-1991.

UDALERRIAK	1860-77	1877-87	1887-00	1900-10	1910-20	1920-30	1930-40	1940-50	1950-60	1960-70	1970-75	1975-81	1981-86	1986-91 (60)
ALTZAGA	-5,50	0,97	-14,42	2,24	5,49	7,81	-1,44	12,74	7,82	—	—	—	—	-7,29
ARAMA	15,53	3,36	0,81	-8,87	20,35	8,08	5,44	-7,09	42,36	0,48	-6,31	-9,32	-6,28	-15,85
ASTIGARRETA	-9,68	-11,41	-12,10	13,33	-24,31	—	—	—	—	—	—	—	—	—
ATAUN	-3,42	-5,07	-0,48	-0,18	-2,89	-5,23	0,08	3,55	13,76	-20,00	-8,14	-7,55	-6,99	-7,18
BEASAIN	48,06	-5,31	-4,82	53,88	26,97	39,33	-5,20	8,76	40,32	32,65	8,22	10,86	3,17	-3,32
EZKIO-ITSASO	-6,31	-11,39	-3,45	-4,15	-7,24	-25,62	3,68	-2,48	12,52	-27,30	-17,53	-7,46	0,00	-9,09
GABIRIA	-7,54	-6,94	-9,52	0,95	5,92	-3,35	-8,33	5,80	-20,64	-3,00	-21,08	-3,33	-4,47	-8,93
GAINTZA	-8,11	-11,03	-3,22	-6,66	-8,24	-7,48	15,21	-13,20	-11,00	-22,54	-18,77	-28,32	-1,61	-5,73
GUDUGARRETA	-7,69	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
IDIAZABAL	-6,67	-3,35	-6,87	0,07	0,42	-4,75	-12,82	48,09	20,03	-2,91	1,10	2,33	-1,21	-3,18
ITSASONDO	-7,70	-4,52	-4,37	8,38	9,49	17,81	-0,95	7,42	16,26	21,03	-10,55	-15,36	-9,61	-15,15
LAZKAO	-1,12	-5,39	-5,30	24,18	11,73	20,85	4,34	9,65	62,90	42,36	19,24	1,47	1,33	-2,14
LEGAZPI	-1,28	0,53	-4,88	3,77	6,88	37,33	45,57	45,13	58,17	53,17	4,39	4,09	-8,09	-3,96
MUTILOA	8,60	-0,70	-7,09	11,25	-17,32	-10,37	2,31	-6,10	-8,19	-22,04	-15,15	-7,53	-21,45	-1,63
OLABERRIA	4,07	-5,97	6,57	7,20	8,25	-6,20	-13,61	8,75	101,00	52,95	1,24	-7,56	-11,81	-14,43
ORDIZIA	23,72	-7,90	4,17	63,10	31,96	44,58	-1,98	10,63	41,78	37,94	10,09	-7,76	-2,86	-3,03
ORMAIZTEGI	-14,40	1,29	2,07	-0,93	-0,31	8,39	4,67	7,12	30,89	18,42	-3,70	8,82	3,21	-6,92
SEGURA	0,58	1,03	-17,86	6,18	-0,95	-3,79	0,54	-2,53	37,96	-6,63	-5,33	-8,28	-2,61	-5,14
URRETXU	2,42	6,21	3,15	3,69	31,19	14,37	26,63	28,21	73,93	24,60	13,15	-6,33	-1,39	-4,98
ZALDIBIA	0,24	-0,16	-1,31	4,64	12,05	2,68	11,78	-1,72	20,45	3,54	-6,23	4,72	-4,50	-11,02
ZEGAMA	-11,82	-4,14	-2,23	-2,33	-6,82	-3,58	4,38	-1,32	10,01	-14,24	-7,36	-5,11	-5,12	-13,07
ZERAIN	2,44	1,53	-7,22	1,44	-7,85	-12,40	8,18	-16,76	-11,79	-8,63	-25,00	-2,43	-3,75	-1,73
ZUMARRAGA	24,62	7,54	8,94	-4,52	7,41	18,88	29,43	8,72	97,62	71,87	4,52	-7,88	-3,25	-1,33
GOIERRI	1,99	-3,31	-2,89	10,06	8,02	12,35	6,02	11,52	42,60	28,80	4,81	-1,80	-2,59	-4,05
GIPUZKOA	2,86	8,75	7,70	15,74	14,06	16,92	9,73	12,74	27,88	31,91	8,16	1,53	-1,03	-2,05

Datu-iturria: Biztanle-Zentsuak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landua).

60. Behin-behineko emaitzak dira.

ITURRI ESTADISTIKOAK ETA BIBLIOGRAFIA

1. Iturri estatistikoak

- EUSTAT: *Biztanleen Berezko Mugimendua. 1975-1980*, Gasteiz, 1989.
EUSTAT: *Biztanleen Berezko Mugimendua. 1980-1985*, Gasteiz, 1990
EUSTAT: *Biztanleriaren Eboluzioa. 1900-1981*, Gasteiz, 1982.
EUSTAT: *Biztanleriaren eta Etxebizitza Zentsua (behin-behineko emaitzak)*, Gasteiz, 1991.
EUSTAT: *Demografi Seriak. 1970-86*, Gasteiz, 1990.
EUSTAT: *Euskal Urtekari Estatistikoa*, Gasteiz, 1982-1990 urteak.
EUSTAT: *Udal Adierazleak 88*, Gasteiz, 1988.
EUSTAT: 1981eko Udal-Errolda. Biztanleriaren Egitura, Gasteiz, 1983.
EUSTAT: *1986ko Udal-Errolda. Biztanleriaren Egitura*, Gasteiz, 1988.
EUSTAT: *1986ko Udal-Errolda. Desanexioak*, Gasteiz, 1989.
EUSTAT: *Irakaskuntzaren Estatistika: 86-87*, Gasteiz, 1988.
EUSTAT: *Irakaskuntzaren Estatistika: 90-91*, Gasteiz, 1992.
INE: *Censo de Población*, Madrid, 1860, 1877, 1887, 1900, 1910, 1920, 1930, 1940, 1950, 1960, 1970, eta 1981 urteak.
INE: *Padrones Municipales de Habitantes*, Madrid, 1975 eta 1986 urteak.

2. Bibliografia

- ALUSTIZA, I.: *Olaberria*, Aurrezki-Kutxa Municipal, Donostia, 1976.
ARDAITZ, I.: *Navarra: elementos para su estudio regional*, Eusko Ikaskuntza, Iruñea, 1980.
ASKOREN ARTEAN: *Ataun*, Aurrezki-Kutxa Municipal, Donostia, 1975.
—*Diccionario de geografía*, Anaya, Madril, 1986.
—*Escenarios demográficos. Horizonte 2016*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 1990.
—*Trabajos prácticos de geografía humana*, Síntesis, Madrid, 1988.
AZURMENDI, J. M.: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*, Aurrezki-Kutxa Municipal, Donostia, 1970.
BARANDIARAN IRIZAR, L.: *Jose Miguel De Barandiaran. Patriarca de la Cultura Vasca*, *La Gran Enciclopedia Vasca*, Bilbo, 1983.
BARRENA, E.: *La formación histórica de Guipúzcoa*, Cuadernos Universitarios, Departamento de Historia, 5. zk. (1989), Donostia.
BECERRA, P.: «Situación y problemática de los estudios demográficos sobre el País Vasco», in *Eusko Ikaskuntza, Historia-Geografía*, 1. zk. (1983).

- BUSCA ISUSI, J. M.: *Zumarraga*, Aurrezki-Kutxa Munizipala, Donostia, 1970.
- CAÑAMERO, A.: «Las comarcalizaciones en Euskal Herria», in *Eusko Ikaskuntza, Historia-Geografía, 1. zk.* (1983).
—«Los movimientos migratorios en el País Vasco en el período 1975-1985», in *Lurralde, 13. zk.* (1990).
- CASTELLS, L.: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*, EHU-Siglo XXI, Madrid, 1987.
- CASTELLS, L.; LUENGO, F.: «El proceso de modernización de Guipúzcoa», in *Ekonomiaz, 9-10. zk.* (1988).
- COPIGRAF: *Información urbanística de Guipúzcoa*, Madrid, 1962.
- DAVILA BALSERA, P.: «El proceso de alfabetización en el País Vasco (1860-1930)», in *Euskal Herriaren Historiari Buruzko Biltzarra. II. Euskal Mundu Biltzarra, Komunikazioak liburukia*, Gasteiz, 1987.
- ELEJALDE, F.; ERENCHUN, J.: *Segura*, Aurrezki-Kutxa Munizipala, 1974.
- GALDOS URRUTIA, R.: *Estructura y dinámica de la población alavesa (1900-1981)*, Arabako Foru Aldundia, Azterlanak, 22. zk., Gasteiz, 1990.
- GARCIA SANZ, A.: «La Inmigración en el País Vasco», in *Ekonomiaz, 9-10. zk.* (1988).
- GARMENDIA, J.: «Estudio de Villafranca de Ordizia», in *Lurraldea, 5. zk.* (1982).
- GIPUZKOAKO MERKATARITZA GANBARA: *Gipuzkoar Ekonomia: 1990*, Donostia, 1990.
- GONZÁLEZ PORTILLA, M.: *La formación de la sociedad capitalista en el País Vasco*, Haramburu, Donostia, 1981.
- GONZALO, J.; LÓPEZ, M. A.; URTEAGA, M.: «Burdinoletatik fabriketara», in *Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia*, Beasain, 1987.
- GURRUCHAGA, A.; PÉREZ-AGOTE, A.; UNCETA, A.: *Estructura y procesos sociales en el País Vasco*, bi liburuki, EHU, Bilbo, 1990.
- HERNÁNDEZ MARCO, J. L.; PIQUERO, S.: «Demografía e industrialización en el País Vasco», in *La industrialización del norte de España*, EHU-Crítica, Bartzelona, 1988.
- INTXAUSTI, J.: *Euskara, Euskaldunon Hizkuntza*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1990
- IPARRAGIRRE, I.: *Cinco villas del Alto Goierri*, Aurrezki-Kutxa Munizipala, Donostia, 1975.
- IKERKA TALDEA: *Astigarraga*, Zarautz, 1990.
- JUARISTI, J.: Optimalismo y ordenación del territorio en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Aspectos conceptuales y metodológicos, in *Eusko Ikaskuntza Historia-Geografía, 1. zk.* (1983).
- LASA, E.: «Hirugarren sektoreko zerbitzu aurreratuak: Goierriko ekonomiaren garapenaren ardatz», in *Beasain Jaietan 1990*.
- LASA, J. I.: *Legazpia*, Aurrezki-Kutxa Munizipala, Donostia, 1970.
- LINAZASORO, I.: *Villareal de Urrechu*, Aurrezki-Kutxa Munizipala, Donostia, 1970.
- LÓPEZ GONZÁLEZ, M. A.: «Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goierri: la fábrica de hierros de Beasain», in *Euskal Herriaren Historiari Buruzko Biltzarra. II. Euskal Mundu Biltzarra, Komunikazioak liburukia*, Gasteiz, 1987.
- MORÁN ALÁEZ, E.: «La situación demográfica del País Vasco (1975-1986)», in *Populazioari Buruzko Biltzarra. II. Euskal Mundu Biltzarra*, Gasteiz 1987.
- MÚGICA, S.: *Geografía general del País Vasco-Navarro*. Provincia de Guipúzcoa, u.g.
- OLAECHEA, J.: *Villafranca de Ordizia*, Aurrezki-Kutxa Munizipala, Donostia, 1970.
- PICABEA, P.: «La población del País Vasco (1900-1930): evolución, factores de crecimiento y estructura del colectivo social a principios de siglo», in *Eusko Ikaskuntza, Historia-Geografía, 16. zk.* (1990).
—«La población del País Vasco: origen y desarrollo del proceso demográfico actual», in *Eusko Ikaskuntza, Historia-Geografía, 1. zk.* (1983).
—«Las recientes transformaciones demográficas en la comarca donostiarra (1981-1986)», in *Lurraldea, 13. zk.* (1990).